



# URTEKARIA DEBAGOIENA 2011



Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.

*Zorionak eta Urte berri on!*



250 lagunentzako jantokia  
Gustua eta luxua denon eskura

**LASA** jatetxea


Ozaeta jauregia  
Tel.: 943 76 10 55  
**BERGARA**  
[www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)  
[reservas@restaurantelasa.es](mailto:reservas@restaurantelasa.es)



# Atxabaltar danoi Zorionak eta urte barri on!



Aretxabaletako  
Udala




|                            |            |
|----------------------------|------------|
| <b>URTEARI BEGIRATUA 4</b> |            |
| 4 URTARRILA                | 30 UZTAILA |
| 8 OTSAILA                  | 34 ABUZTUA |
| 12 MARTXOA                 | 36 IRAILA  |
| 18 APIRILA                 | 40 URRIA   |
| 22 MAIATZA                 | 43 AZAROA  |
| 26 EKAINA                  | 46 ABENDUA |



# URTEKARIA

# DEBAGOIENA

# 2011



## goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Argitaratzailea</b><br>Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea<br>E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA<br><b>Lehendakaria</b> Estepan Plazaola<br><b>Zuzendari nagusia</b> Inazio Arregi<br><br><b>EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA</b><br>ARRASATE 20500: Oñati Lantegiaren 31  <br>132 posta-kutxa Tel.: 943 25 05 05  <br>Faxa: 943 25 05 00   arrasate@goiena.com | <b>Harpidetza</b> Aretxabaleta 20550<br>E05 Basabe Poligonoa   Tel.: 943 08 10 50<br>harpidetza@goiena.com<br><br><b>Lege Gordailua:</b> NA-3329/2000<br><b>ISSN:</b> 2174-369X<br><b>Tirada:</b> 20.100 ale.<br><b>Difusioa:</b> 19.951 ale.<br><br>OJD erakundeak ikuskatutako astekaria. | <b>DEBAGOIENA 2011 URTEKARIA</b><br><b>Zuzendaria</b><br>Eneko Azkarate.<br><b>Erredaktore burua</b><br>Monika Belastegi<br><b>Erredakzioa</b><br>Leire Kortabarria, Xabi Urtzelai, Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Arantzazu Ezkibel, Edu Mendibil, Asier Alkorta, Mirian Biteri, Mireia Bikuña, Jokin Bereizbar, Mirari Altube, Usao Agirre, Larrait Zeberio, Jon Bereizbar. | <b>Testuen zuzenketa</b><br>Sergio Azkarate.<br><b>Maketazioa</b><br>Itziaki Iturbe, Kepa Martelo, Imanol Soriano.<br><b>Publizitatea</b><br>Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Edume Gorosabel, Imanol Elortza, Itsaso Bereizbar.<br><b>Argazkiak</b><br>Erredakzioa, Imanol Soriano, Ekin, Jakiunde, Josetxo Arantzabal, Julio Calleja, Argazki Press. |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

GOIENAK ez du bere gain hartzen argitalpen honetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

HONAKO URTEKARIAREN EDIZIOA ABENDUAREN 23AN ITXI DU GOIENAK

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## DEBAGOIENA

**GERNIKAKO AKORDIOA  
EZAGUTZERA EMATEKO KANPAINA**

2010eko irailaren 10ean Euskal Herriko hainbat alderdi, sindikatu eta eragilek sinatutako Gernikako Akordioa herritarrei ezagutzera emateko kanpaina hil erdialdean heldu zen gura. Arrasaten, esaterako, urtarrilaren 13an aritu ziren eskuorriak banatzen.

## BERGARA

**PLAN ESTRATEGIKORAKO,  
HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

Udalak herritarren parte-hartzea aintzat hartu zuen plan estrategikoa egiteko. Hilaren 12an hasi eta martxora bitartean batzar irekiak egin zituzten udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta, bilerok eraginkorrak izateko, herria hiru eremutan bereiztu zuten.

## ANTZUOLA

**ARROLA MENDI TALDEAREN  
HISTORIA, INTERNETEN**

Arrola taldeko kide batzuek 180 bat argazki digitalizatu eta Internetera igo zituzten. Taldearen historia jasotzen duten argazkiak dira, sorreratik, hau da, 1972tik, gaur egunera arte ateratakoak. Hona helbidea: [picasaweb.google.com/arrolamt](http://picasaweb.google.com/arrolamt).



## ARETXABALETAKO

**Realaren entrenamendu  
saioan, Ibarra lepo ◀▲**

Urtarrilaren 10ean etxetik kanpora egindako urteko lehen entrenamendu saioa egin zuen Realak Ibarren. Ordubete inguruko entrenamendu saioa egin zuten –ezkerreko irudian, talde nagusiko jokalariek– harmailak lepo bete ziren. Gero, sinadurak eman eta argazkiak ateratzen aritu ziren jokalariek –goiko irudietan–. Bisita amaitzeko, orduan talde txuri-urdinaren babesle zen Astoreren lantegian izan ziren, Arrasaten.

## ARRASATE

**Txikilandiak 20 urte, eta  
omenaldia betiko kideei ▶**

Txatxilipurdiren Gabonetako jolas parkeak 20 urte bete zituen. Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an denetarikoa aisialdi eskaintza izan zen Musakolako kiroldegian. Hilaren 3a izan zen egunik jendetsuena; antolatzaileen arabera, 450 neska-mutiko baino gehiago izan ziren egun hartan. Bestalde, azken 20 urteotan lanean jardun duten kideei omenaldi xumea egin zien Txatxilipurdik. Oroigarri bat jaso zuten, Ane Zuazubizkarren bertso eta guzti.



## ARRASATE

**Olio batzeko makinak ibarreko herri gehienetan ▲**

Debagoieneko Mankomunitateak sukaldeko olio birziklatzeko edukiontzia jarri zituen bailara osoan. Bergaran hilaren 11n eta 12an jarri zituzten edukiontzien ostean, ibarrean 21 makina daude egun. Hala, Puntu Berde Mugikor zerbitzua desagertu egin da.

**2012a oparotasunez beteta izatea opa dizugu.**

**Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta  
gure zerbitzuak eskeintzen segituko dugulakoan.**

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Araba ibilbidea  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxes: 943 792 941  
E-mail: [info@eguzkigraf.com](mailto:info@eguzkigraf.com)



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

**30 urte  
baino gehiago  
zure  
zerbitzura**



**MARTIN frutategia**

**Frutan eta txarkuterian**

**espezialista**

**Urte berri on!**

**San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58**



**ARETXABAETA**  
**IZURIETAKO BIDEA KONPONTZEN**  
**HASI ZEN BIDEGI**


2010eko uztaila ezker obra esleituta izan arren, urtaril amaieran hasi zen Bidegi Izurietako bidea konpontzen. Eibar-Gasteiz autobidearen lanek eragindako kalteak konpondu zituzten; bidearen zorua berritu eta bidea ondo seinalatzatu zuten.

**BERGARA**  
**BERDINTASUNA LANTZEKO**  
**LIBURUXKAK, UDALARI ESKER**

Hilaren 23an gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna lantzeko liburuxkak aurkeztu zituen Udalak. Bost liburuxka kaleratu zituzten, arloz arloko egoera eta etorkizuneko asmoak jasotzen dituztenak. 4.800 ale ateratzea zen asmoa.

**ELGETA**  
**HERRIAK HOBERA EGIN ZUELA**  
**ESAN ZUTEN ELGETARREK**

Gizaker enpresak telefono bidez 234 elgetarri egindako inkestan, herritarrek adierazi zuten azken urteetan Elgetak hobera egin duela. Gogobetetze maila orokorra 7,56 dela ondoriozta zitekeen. Beharrak identifikatzeko ere balio izan zuen ikerketak.



**ARRASATE**  
**XABIER**  
**ZUBIZARRETA**  
EZKER  
ABERTZALEKO KIDEA

**"Epaiarekin zilegitasun osoa eman diote Udalbiltzari erakunde moduan jokatzeko"**



**ARRASATE**  
**JASONE**  
**MARTINEZ**  
AVIA GASOLINDEGIKO  
ARDURADUNA

**"Gasolindegian nabilenetik ikusi dudan preziorik garestiena da"**



**DEBAGOIENA**

**Madrilgo Fitur azokan gure bailara ere izan zen 'salgai' ▲**

Hilaren 19an ireki zen Madrilgo Fitur turismo azokan Debagoienak izan zuen bere txokoa. *Berde eta naturala* izenburupean, bailarako ibilbide kultural, natural eta mendi-ibiliak erakutsi zituzten, besteak beste. Inaugurazio egunean Debagoieneko ordezkariarik ez zen falta izan; han izan zen, esaterako, Ernesto Murgiondo oñatiarra –argazkian, Ikerne Altube Garapen Agentziako arduradunarekin.



**ARAMAIO**

**Sagardo denboraldi berria ireki zuten Iturrietan ◀▲**

Urtarrilaren 20an Edurne Brouard Korrika 2011ko arduradunak ireki zuen sagardo denboraldi berria Iturrieta sagardotegian: "Eus-kalakariok, hau da aurtengo Arabako sagardo berria". Juan Jose Pecina ugazaba pozik agertu zen uztarekin eta Arabako sagar propioa aldarrikatu zuen. Izan ere, sagardo berria Arabako Sagarzaleen Elkartearen izenean (ASSE) aurkeztu zuten –goiko argazkian.

# TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean  
ipintzera arte dena gure esku  
Fabrikako preziotan



Elgeta bidea,  
gasolindegitik  
300 metrora  
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41  
Astelehenetik  
larunbatera  
10:00etatik 13:00etara  
eta  
16:00etatik 20:00etara  
zabalik



- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain **ALFONBRAK**



51,4

MILIOIKO EMAITZAK

Urtarrileko hirugarren astean aditzera eman zuenez, Kutzak 51,4 milioi euroko emaitzak lortu zituen 2010ean, 2009an baino %9,8 gutxiago.

#### DEBAGOIENA 400 LANGABE GUTXIAGOREKIN HASI ZUEN URTEA DEBAGOIENAK

2009ko eta 2010eko datuak alderatuta, puntu bat baino gehiago txikitu zen langabezia tasa 2010 bukaerarako. Hala, 400 langabe gutxiagorekin hasi zen urte berria gure ibarrean; Arrasate eta Eskoriatzan hobetu zen egoera batez ere.

#### DEBAGOIENA 'AUZOLANA HERRIRA' EKIMENA ARRASATEN ABIATU ZEN

Garaion Naturarteak gidatuta, Auzolana herrira ekimena hasi zuten Arrasaten, hilaren 20an. Naturako elementuekin artelanak egitea zen helburua, ikasleen artean auzolana sustatuta. Apirilera arte iraun zuen ekimenak, bailara osoan.



#### OÑATI

#### Mantxola aita-alabak, Goya sarietara ◀

Maria Reyesek zuzendutako *Una caja de botones* film laburrari esker Goya sarietarako izendapena jaso zuten urtarrilean Aitor Mantxola eta Sara Mantxola oñatarrak. Sarak berak proposatu zion aitari *casting*-era aurkeztea; Sarari protagonistaren papera eman zioten.

2009ko irailean filmatu zuten film laburra Valladolid eta Madril artean. Aitak eta alabak esperientzia "polita" izan zela adierazi zuten.

#### ARRASATE

#### Euskadin "ondoen" doan azoka, Arrasatekoa ▲

Moises Altuna Arrasateko Obrak eta Zerbitzu Saileko teknikari-buruak hala azaldu zuen: "Diote Euskadin ondoen funtzionatzeko duen azoka dela, jende asko dabilena, oso azoka indartsua dela". Izan ere, merkatarien arabera, 50-60 urte arteko emakumeek gain gazte asko doala kontratatuta dago; errelebua lanean dabiltenak, esaterako: "Barikuetan 08:00ak baino lehen jendea karroarekin ikusten da etxera bueltan", adierazi zuen Altunak.

#### ARAMAIO

#### DKS sarien ekitaldia, gure kirolariak saritzeko ▶

Debagoieneko udalen eskutik, urtarrilaren 2lean egin zen ibarreko kirolari onenak saritzeko DKS sarien ekitaldia, Aramaioko kultura etxean. Hirugarren edizioa izan zen eta denetarikoa sariak eman zituzten. Gizonezko kirolari onenaren saria Alberto Iñurategi goi mendizaleak jaso zuen eta emakumezkoen onena, berriz, Jone Elortza soka tiralarariak, baina beste hainbat sari ere banatu ziren. Helburua ibarreko kirolarien lana saritzea zen.



Andra Mari auzunea 3 Behea  
ARETXABALETA  
Tel./Faxe 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

**ANDRA MARI**  
AHOLKULARITZA

FISKALA • KONTABLEA  
LABORALA • DEFENTSA JURIDIKOA

*Jai Zoriontsuak  
eta  
Urte Berri On!*



**Garbittu**

Santakurtz 24 behea. ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21  
garbittu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obrak bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

*Zorionak eta Urte berri on!*



**DEBAGOIENA**  
**HAUTESKUNDE SINDIKALETAN ERE KRISIA, 100 ORDEZKARI GUTXIAGO**

Logikoa den moduan, krisiak sindikatuetan ere eragin zuen, ordezkari gutxiago aukeratu behar izan ziren-eta. 100 ordezkari gutxiago Debagoiengan; 430 ordezkari ingurutik 330era. Gure ibarrean ELA sindikatua izan zen nagusi.

**BERGARA**  
**MAIALEN DELGADO BEGIRALEA, 'EL CONQUIS' SAIOAN**

Bergarako igerilekuan begirale lanetan aritutako Maialen Delgado eibartarra urtarrilean hasi zen *El Conquistador del fin del mundo* telebistako saioan aritu zen. "Oso esperientzia gogorra" izan arren errepikatu egingo lukeela adierazi zigun.


**ARETXABALET**  
**URKULUKO BIDEGORRIAREN BESTE ZATI BAT AMAITU ZUTEN**

Urkulu ingurua biziberritzeko planaren barruan, bidegorriaren bigarren zatia amaitu zuten urtarrilean. Hain justu, Etxaluze baserri ingurutik Areantza auzoko bidegurutzeraino doan bidegorri zatia amaitu zuten urtarril amaieran.



**OÑATI**  
**FERMIN**  
**ETXEGOIEN**  
IRRATI ESATARIA

Azken asteburuan banatu zituzten Argia sariak. Fermin Etxegoien esatariak jaso zuen saria irrati atalean, *Ekaitz perfektua, 100 diskorik onenak* saioarengatik.



**ANTZUOLA**  
**AITOR**  
**MENDIZABAL**  
PILOTARIA

Profesionalerako jauzia oraindik eman barik zela, hilaren 9an Getxon jantzi zuen Euskadiko elite mailako lau t'erdiko txapela Aitor Mendizabalek.



**DEBAGOIENA**  
**Pentsioen erreformarako grebak, erantzun ona ◀◀**

Urtarrilaren 27an egin zen pentsioen erreformaren aurkako greba orokorrerako deialdiak erantzun zabala izan zuen. ELA eta LAB sindikatuetaordezkarien arabera, geldialdia %100era hurbildu zen eta ez zen istilu aipagarrikerik gertatu. Arratsaldean Arrasaten manifestazioa egin zuten *Errespetatu herritarron eskubideak. Nahikoa da!* lelopean. Antolatzaileen esanetan, 1.000 herritar inguruk hartu zuten parte.



**BERGARA**  
**Tavex, Gabiria dorretxeko bulegoetan bakarrik ▲**

Enpresako zuzendaritzak eta langileek akordioa egin zuten eta urtarrila bukatzearekin bat itxi egin zen Tavex taldeak Bergaran duen lantegia. Orduetik, beraz, Gabiria dorretxeko bulegoak dira Tavexen jarduera bakarra. Enpresaren desgiterako, langileak eta arduradunak urtarrilean aritu ziren negoziazioetan. 64 langilek erabaki zuten Tavexekiko lan harremana etetea.



**ALDEDI**

Urte berri on!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



## ESKORIATZA

**LANGILE BAT HIL ZEN FAGOR EDERLANEN, LAN ISTRIPIUAN**

Pieza bat burura jausi eta kolpearen eraginez hil zen Manuel Martin 56 urteko gizonezkoa Fagor Ederlanen. Gertatutako istripua salatzeak elkarretaratzea egin zuten Eskoriatzako plazan, herritar talde batek deituta.

## DEBAGOIENA

**EUSKARAZKO HEDABIDEETI LAGUNTZEKO ESKAERA**

Euskal Herriko euskarazko hedabide ez publikoek, tartean Goienak, editorial bateratua argitaratu zuten, eskatzeko erakundeei estrategikotzat har zitzatela euskarazko hedabideak, eta duten garrantziaren tamainan babes eta diruz lagun zitzatela.

## BERGARA

**AITZIBER PLAZAOLA GAZTEAK ITXIALDIA HASI ZUEN IZPURUAN**

Euroagindua aurka protesta egiteko itxialdia hasi zuten Segiren kontra urrian egindako polizia operaziotik ihes egindako zortzi gaztek; tartean, Aitziber Plazaola bergararrak. Elkartasuna adierazteko mobilizazioak egin zituzten Bergaran.



## ARRASATE

**Markak hautsi zituen Ekinen erakusketak ◀▲**

Arrasateko emakumeen argazki erakusketa egin zuten Ekinen erakusketak eta 1.000 lagun inguruk bisitatu zuten, eta Kultureko klaustroetan ipinitako erakusketen artean bisitatuena bihurtu zen.

Ekin elkarteak oso pozik agertu ziren: "Eskertzekoa da egindako lanak bere fruituak erakustea. Denbora mordoa egon gara prestatzen, eta gustatu egin zaigu jendea gustatzea eta horrenbeste jende joatea", kontatu zuen Tamara Perezek.

## ANTZUOLA

**Antzuola eta Ezkio-Itsaso zatiaren lehen harria ▲**

Antzuola eta Ezkio-Itsaso mendebaldeko zatiko lehen harria jartzeko ekitaldia egin zuten. Garraio sailburu Iñaki Arriola eta Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Mikel Cabieces izan ziren bertan.

Cabiecesek Arriolaren lana txalotu nahi izan zuen, lana "ondo" egiten ari delako. Arriolak gaineratu zuen dena behar bezala baldin badao adar horretako lanak 2016. urterako egongo direla amaituta.



## ESKORIATZA

**Agirregabiria, Sorturen aurkezpenean ◀▶**

Hego Euskal Herria esparru duen Sortu alderdia aurkeztu zuten, Bilbon. Aurkezpenean ezohiko eragile sozialek parte hartu zuten; ezohikoek, baina ezagunek, eta tartean ibarreko ordezkariak ere izan zen: Karmele Agirregabiria, Leintz Udal Euskaltegiko zuzendaria.

Independentzia eta euskara ditu ardatz alderdi berriak eta sozialismoa erreferente. Hala, demokrazia parte-hartzailea bultzatuko duela iragarri zuten.



**Mitartegarakai**

Baserri turismoa eta taberna



Kalitate turistikoa

**Zorionak, denoi!**

- Batzar gela.
- Jangela.
- Logelak.
- Etxeko produktuen salmenta.



**Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 00 33  
943 79 42 56



**FELIX PAGALDAY**

Zorionak eta  
urte berri on!



## DEBAGOIENA

**STEE-EILAS BOZKATUENA IBARREKO IKASTETXEETAN**

Euskal Autonomia Erkidegoan bezalaxe, Debagoiengan ere STEE-EILAS izan zen garaile hezkuntzako hauteskunde sindikaletan (148 boto). Gainerakoak hauek izan ziren, hurrenez hurren: LAB (108), ELA (60), CCOO (31) eta UGT (5).

## BERGARA

**KALE GARBITZAILEEK EPAIKETA IRABAZI ZUTEN**

Cespa eta Udala salatu zituzten lau kale garbitzaileek epaiketa irabazi zuten. Epaiaren arabera, kaleratze ezegokiagatik 222.149 euroko kalte-ordaina eman beharko lieke Bergarako Udalak. Udaltzak errekurritzea erabaki zuen osoko bilkuran.

## DEBAGOIENA

**SERIEAN EGINDAKO LEHEN AUTO ELEKTRIKOA EROSKIK**

Mercedes Benz automobil-etxeak Eroskiko presidente Agustin Markaideri eman zizkion Vito E-Cell autoaren giltzak. Seriean egindako lehen auto elektriko hori Eroskiko langileek erabiliko dute. 550 kiloko bateria dauka eta 80 km/h abiadura har dezake.



**DEBAGOIENA**  
**OSKAR ELIZBURU**  
AEK-KO ARDURADUNA

**"Eskatzen diogu jendarteari, norbanakoari, 'euskalakari' izateko"**



**DEBAGOIENA**  
**ANGEL GARAI**  
BOTIKARIEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

**"Eraginkorragoa da gau guztietan zabalik dagoen farmazia bakarria edukitzea"**



## OÑATI

**Gure Txokoren 75 urteko historia liburuxkan ▲**

2010eko maiatzaren 27an bete zuen Patrua kalean dagoen Gure Txoko elkarteak 75. urteurrena; kaleko elkarterik zaharrena da. Ospakizunetan eman zituzten hilabeteak, eta, urtemuga boro-biltzeko, elkartearen historia biltzen duen liburuxka argitaratu zuten otsailean.

Guztira, 200 ale argitaratu dituzte, eta bazkideen artean banatu. 50 bazkide ditu gaur egun elkarteak eta horietatik hiru emakumeak dira.



## BERGARA

**Eguneko zentroa inauguratu zuten ◀**

Otsailaren 10ean inauguratu zuten eguneko zentroa, erabiltzaileak abendua ezker bertan zeuden arren. Eguneko zentroak ematen duen zerbitzuaren garrantzia azpimarratu zuen inaugurazioan Agurne Barruso alkateak: "Zerbitzuak ahalbidetzen du gaur hemen ikusten ditugun emakume eta gizonak gure etxeetan izatea, familiei aukera ematen baitie pertsona nagusiak etxean edukitzeko euren zereginak egiten segitzen duten bitartean".

## BERGARA

**'Ene ametsetako Aviva', gutunik onena ▲**

"Originaltasuna eta euskara erabiltzeko modu dotorea" izan zuen kontuan epaimahaiak amodiozko gutunen lehiaketako sari nagusia ematerakoan. Santurtzikoko Idoia Galanek eroan zuen lehenengo saria: 500 euro.

Bigarren saria Elaine Agirre bermeotarrak irabazi zuen: 250 euro. Bergarako gutun onena Elene Etxaniz osintxuarrarena izan zen, Osintxuko euskararen idatzitakoa; 150 euroko saria irabazi zuen hark.

## J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



Tel. : 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

### • INPLANTEAK Punta-puntako teknologiarekin

- Aho zirugia
- Ortodontzia
- Odontologia orokorra
- Ahoko eta aurpegiko estetika plasmarekin.

**Aseguruak: PADI** (Osakidetza), AEGON

**20 urte baino gehiago zuekin Bergaran, eskerrik asko dano!**




**MAPFRE**



**ALTUBE  
ZERBITZUAK**

*Ondo pasau Gabon jaiak!*

*Urte berri on!!*







## ESKORIATZA

## SANTA AGEDAREN HARIRA, 'KINTTO EGUNA' LEHEN ALDIZ

Santa Agedako ospakizunen harira, otsailaren 5ean I. Kintto Eguna ospatu zuten Eskoriatzan lehen aldiz. 2011ko kinttoez gain, adin askotariko kintoak bildu ziren, giro ederrean. Eguraldia lagun, abestu eta dantzatzuz, parranda ederra egin zuten.




**ARAMAIO**  
**ASIER**  
**AGIRRE**  
ARAMAIOKO  
ALKATE OHIA

Arabako Auzitegi Probintzialak absolbitu egin zuen Aramaioko alkate zen Asier Agirre, Aramaion AHTren gaineko herri galdeketa egiteagatik.



**ARETXABALETA**  
**KEPA**  
**ERRASTI**  
AKTORE, GIDOIGILE  
ETA ZUZENDARIA

Maritxu izeneko film laburra estreinatua zuen Aretxabaletan. Errastik zuzendutako lehen film laburra da; 80 urteko emakume baten istorioa kontatzen du.



## ARAMAIO

## Arrasate eta Aramaio arteko errepidea zabaldu zuten ▲

2010eko urtarrilaren 30ean gertatutako luiziarren ondorioz urtebete baino gehiagoz itxita egon ostean, otsailaren 24an zabaldu zuten Arrasatetik Aramaiorako errepide zati berria.

Aramaioko alkate Asier Agirre pozik bazegoen ere, Udalean irekieraren gaineko jakinarazpen ofizialik jaso ez izana salatu zuen. Nabarmendu zuen errepide "egokia" dela; dena dela, Cuatrovientos baserrirako sarrerarekin kezkatuta azaldu zen.

## LEINTZ GATZAGA

## Frontoi eraberritua inauguratu zuten ►

Gatzagako pilotaleku zaharberri-tua inauguratu zuten. Hain justu, lehendik zegoen markesinaren estalkia e gokituz, birgaitu eta hobetu zuten, eta lehengo kobrezko estalkiaren ordez zerkamikazko teila gorria ipini.

Frontoi berriaren inaugurazioarekin batera, Arlaban gaineko ur hornikuntza eta saneamenduaren lanei hasiera eman zieten. Bi proiektuak Foru Aldundiaren Landagipuzkoa 32 egitasmoaren barrukoak dira.



## ANTZUOLA

## 'Antzuolako aditza' liburuxka kaleratu zuten ▲

Badiharduguk *Antzuolako aditza* izeneko lana argitaratu zuen. 2005ean Oñati eta Eibarko aditz-taulak kaleratu zituzten, eta, ordutik hona, Deba ibarreko beste sei argitaratu dira.

Liburuxkan, ahoz gehien entzuten diren formak jaso dira; idazteko erabiltzeko ere badira. Jone Larrañagaren *Antzuolako hizkera* liburua izan da lanaren iturria eta Maripi Laskurain eta Badihardugu euskara elkarteak izan dira koordinatzaileak.



## DEBAGOIENA

## Eragiten segitzea eta sakontzea adostu zuten ◀

Topaguneak eta Euskaldunon Elkarteen Mugimendua osatzen duten 96 elkarteek "eragiten segitzeko eta sakontzeko" konpromisoa berretsi zuten Bilbon egindako kongresuan.

Euskaraz bizi izateko haututik "eragiletzan sakontzea" erabaki zela adierazi zuen Karmen Irizarrek, Topaguneko lehendakariak. Etorkizunean, hizkuntzaren biziberritzea "gizarte mugimenduaren eskutik" etorriko dela gaineratu zuen.



**AGIRRE**  
**HORTZ KLINIKA**

**Urtea ondo**  
**bukatu eta**  
**hobeto hasi**

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. Bergara Tel.: 943 76 00 23 Ordutegia: 08:00-21:00 (Eguerdian ere zabalik).



**KANPAZAR**

*Zorionak eta urte berri on!*



Bizkaia etorbidea z/g ARRASATE  
Tel.: 943 79 41 98 • Faxe: 943 77 12 84



ESKORIATZA  
ZAHARREN EGOITZARAKO DIRUA  
BATZEN HASI ZIREN

Eskoriatzako zaharren egoitzak bizi zuen egoera ekonomiko txarrari buelta emateko diru-bilketa kanpaina jarriko zuten martxan. Egoitzaren funtzionamendua berriro bideratzeko proiektuen berri eman zuten patronatuko kideek.

OÑATI  
ARANTZAZUKO PARKETXEA  
INAUGURATU ZUTEN

Aizkorri-Aratz parke naturaleko interpretazio zentroa inauguratu zuten otsailaren 14an; Gandiaga II eraikinean dago. Parketxearen helburua da lurraldearen natura eta kultura hastapenei buruzko hausnarketa egiteko interpretazio-gune izatea.



DEBAGOIENA  
AINHOA  
LARRAÑAGA  
HUHEZIKO  
IRAKASLEA

"Egileen atzetik  
daudenen interes  
ekonomikoek gidatu  
dute Sinde Legea"



ARRASATE  
JONATHAN  
PEREZ  
PERTIKA  
JAUZILARIA

Donostian jokaturako Euskadiko txapelketan Jonathan Perez arrasatearra izan zen onena; 4,80 metroko jauziarekin lortu zuen urrezko domina.

199  
JAIOTZA

20 urteotako jaiotze kopuru handiena Arrasaten: 199 ume jaio ziren 2010ean. 2009an baino 24 gehiago eta orain dela bi urte baino 30 gehiago.



OÑATI  
Andaluziako Itzulia irabazi zuen Markel Irizarrek ▼◀

Markel Irizar (RadioShack) oñatiarrak 57. Andaluziako Itzulia irabazi zuen, sailkapenean zuen segundo bateko aldeari eutsi ondoren. Harekin batera igo ziren podiumera Van den Broeck (Lotto) eta Leipheimer (RadioShack).

Saria jaso ondoren "oso pozik eta gustura" zegoela esan zuen eta behin eta berriz azpimarratu zuen taldeak egindako lana.



DEBAGOIENA  
Usurbilgo Itunarekin bat egin zuen Mankomunitateak ▲

Debagoieneko Mankomunitateak hondakinen kudeaketaren gaineko Usurbilgo Itunarekin bat egin zuen. Xabier Mikel Errekondo Usurbilgo Itunaren ordezkari eta herri horretako alkateak Mankomunitatearen erabakia "pozgarritzat" jo zuen. Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alkatearen esanetan, "balio garrantzitsuak babestu eta landu behar ditugu, hala nola osasuna eta ingurumena".



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51





## DEBAGOIENA

**Mozorro koloretsuak  
Aratusteak girotzeko ▶▶▲**

Debagoiena mozorro koloretsuz bete zen Aratusteak ospatzeko eta inoiz baino jende gehiago izan zen zapatuko eta domekako ospakizunetan. Aretxabaletarrek karroza dotoreak atera zituzten; tartean, lehenengo saria jaso zuen Txinako harresia (azpiko argazkian). Arrasate, oster, zonbi beldurgarriek hartu zuten; Aramaion, Harrisonen gizonak erakustaldia egin zuten; eta Bergaran, Santanako armadak ekarri zuen burrunba.



## BERGARA

**KALE-GARBIKETAREKIN ARAZOA  
ZEGOELA SALATU ZUEN EAJ-K**

Bergarako Udalak bere gain hartu zuen kale-garbiketa zerbitzua eta EAJ aurka azaldu zen hasieratik. Zerbitzuan "hobekuntzarik ez" zegoela eta "dirurik ere ez zutela aurreztu" salatu zuten jeltzaleek. Kale garbitzaileek bizi zuten "egoera txarra" ere aipatu zuten.

## ARETXABALETA

**LURRALDEBUSKO 200.000.  
TXARTEL BAKARDUNA**

Angel Akizu aretxabaletarra izan zen Lurraldebusen txartel bakarraren 200.000. erabiltzailea. Aldundiak saritu egin zuen martxoaren 8an egindako ekitaldian, eta 2012ko apirila arte debalde bidaia ahal izango du Lurraldebusen.

## ESKORIATZA

**BERBALAGUN EGITASMOAN  
HIRU TALDE SORTU ZIREN**

Berbalagun egitasmoa abian jartzeko erronkari heldu eta hiru talde sortu zituzten Eskoriatzan, Udalaren bitartez. Paseorako edo pintxo-poteorako elkartu eta euskaraz jardutea helburu bakarra zuten 20 lagun elkartzen ziren astean ordubetez.



## OÑATI

**'Txori meteorologoa'  
Ganbara Txikitxorekin▲**

*Txori meteorologoa* Josu Elberdinek idatzi eta ondoren egokitutako ipuin musikala eskaini zuen, martxoaren 6an, Aitor Biai-nek zuzendutako Ganbara Txikitxoak abesbatzak. 60 neska-mutikok hartu zuten parte (goiko argazkian), eta, jatorrizko argumentuari eutsita, gidoia aldatu eta pertsonaia berriak sartu zituzten oñatiarrek. Gurutz Gereta eta Sara Mantxola protagonista izan zituen musikalak txalo zaparrada jaso zuen.



## ARRASATE

**Omenaldi hunkigarria egin zioten Isaias Carrascori ▲**

Omenaldi hunkigarri eta jendetsua egin zioten 2008an ETAk eraildako Isaias Carrasco zinegotzi sozialistari, martxoaren 6an. PSE-EEko aurpegi ezagun asko elkartu ziren Carrascoren senideekin, tartean Rodolfo Ares Barne sailburua eta Jesus Egiguren sozialisten presidentea.



# Zorionak eta urte berri on!

**08:30 - 20:30  
eguerdian zabalik!**

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92  
**BERGARA**







**OÑATI  
MARISOL  
RAMOS**  
ESPAINIAKO KROS  
TXAPELDUNA

Haron (Errioxa) jokaturako txapelketan Espainiako kros txapelduna izan zen antxintxikalari ofiatiarra beterronen mailan (50 urtetik gorakoak).



**ANTZUOLA  
BEÑAR  
KORTABARRIA**  
'TEKNOPOLIS'  
SAIOKO ZUZENDARIA

Elhuyar Fundazioak ekoiztutako *Teknopolis* telebista saioko dokumental batek (egileetako bat Kortabarria) bioteknologiaren dibulgazio saria jaso zuen Madrilén.

**LEINTZ GATZAGA**  
**SARIAREKIN ITZULI ZIREN FIRST  
LEGO LEAGUE TXAPELKETATIK**

Herriko bost gaztetxok eta bi helduk osatutako Prototype taldea sariarekin itzuli zen Bilbon egindako First Lego League txapelketatik, martxoaren 12an. Entrenatzaile onenaren saria jaso zuten, eta gaztetxoek egindako ahalegin handia aipatu.

**BERGARA**  
**ANGIOZARREN ETA OSINTXUN  
KORRIKA BATZORDEAK LANEAN**

Jakinik Angiozartik lehenengoz pasatuko zela Korrika, batzordea eratu zuten auzotarrek ongietorri "beroa" egiteko.

Osintxun, osterara, auzoan sortu berri zen Euskara batzordeak antolatu zituen Korrikaren inguruko ekitaldiak.



**ARRASATE**

### UNE 175.001 ziurtagiria Debagoieneko sei dendari ◀

Debagoieneko sei komertzio (argazkian lau ordezkari) jaso zuten kalitatearen UNE 175.0001 ziurtagiria martxoaren 20an EAEko beste 100 bat komertzioarekin batera: Arrasate Optika, Ekobai, Sikol, Tamayo, Juanje argazki-denda eta Hurbil belar-dendak.

Ziurtagiri hori jasotzeko ikastaro bat egin behar izan zuten, lehenengo, dendariak, kalitatearen inguruan formazioa jaso eta euren lokalak araudiari egokitzeko.



**BERGARA**

### Monzon gogoan, hil zela 30 urte betetakoan ▶

Martxoaren 9an bete ziren 30 urte Telesforo Monzon hil zela eta Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak hainbat ekitaldi antolatu zituzten gogoratzeko: hiru hitzaldi, Pantxoa eta Peioren kontzertua...

Udal Artxiboaren gaineko plakatxoak omenduaren izena izan arren, plakarik ez zuen, eta horixe jarri zioten, aurrekua dantzatu eta lore sorta eskainita (argazkian, plaka jarrita, tartean orduko alkate Agurne Barruso zela).



**ANTZUOLA**

### Atez ateko sistemari ekin zioten zaborra batzeko ▲

Martxoaren 7an ekin zioten antzuolarrek atez ateko sistemari. Ongietorri jaia antolatu zuten eta orokorrean harrera ona egin ziotela herritarrek jakinarazi zuten Informazio Bulegokoek. Ordura arteko edukiontzia desagertu egin ziren kaleetatik, eta zintzilikarioak jarri.



Oñatiko Udalak, osterara, bosgarren edukiontzia (marroia) aldeko hautua egin zuen gehiengo osoz martxoaren 31n egindako osoko bilkuran.



**Orain, Super Amaran ere bai!**

*Gabon zoriontsuak igaro!*

Ibargarai 24 Bergara  
Tel.: 943 76 70 29



**Mekanizatua**

**C.N.**

**CAD-CAM**

**Zorionak eta urte berri on!**



## OÑATI

**ENERGIA GARBIEN ALDEKO APUSTUA EGIN ZUEN UDALAK**

Herritarren eskura jarri zituzten kiroldagiko eraikin berriko eta merkatu plazako eguzki plakak; 750 eurotan saldu eta 25 urtean %6ko etekina jasotzeko urtero. Aldundiak azpimarratu zuen energia fotovoltaikoan inbertitzearen garrantzia.

## BERGARA

**FIACHRAS TALDEAK 'HILTZERA GOAZ' DISKOA AURKEZTU ZUEN**

Martxoaren 19an aurkeztu zuen Fiachras taldeak *Hiltzera goaz* diskoa, Bergarako gaztetxean. Bonberenea etxean grabatu eta 10 abestirekin (euskaraz eta gaztelaniaz) osatutako bigarren diskoan ahotza gehiago landu zuten bergarrek.

## OÑATI

**'NO MORE BORING FRIDAYS' KULTURA EKIMENA ABIAN**

Oñatiko Enpresagintza Fakultatean kultura ekimen bat jarri zuten abian martxoan: *Egubakoitz aspergarri gehiagorik* ez. Ikasle eta irakasle talde batek bultzatuta, unibertsitatea gizarteari zabaltzea zuten asmoa, hainbat ekitaldi antolatuta.

## ARRASATE

**MINBIZIDUN UMEAK ZAINTEKO PRESTAZIOA LAGUN AROK**

Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko prestazio berria sartzeko eskatu zioten Lagun Arori, martxoaren 23an. Prestazio horrek iraungo luke umea ospitalean egon eta tratamenduak iraun bitartean.



## ARRASATE

**JULIA MONGE SAGRA LOPEZ MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEAK**

Emakume Txokoaren eskutik, 80ko eta 90eko hamarkadetan borrokatutakoak, egindakoak eta lortutakoak gogoratu zituzten talde feministetan ibilitakoek.

## ARAMAIO

**Inauguratuta abian zegoen eguneko zentroa ▼**

Otsailaren 16a ezker abian zegoen eguneko zentroa inauguratu zuten martxoaren 9an, Covadonga Solaguren Gizarte Zerbitzuetako diputatuaren bisitarekin. Zentroko sei erabiltzaileak gustura agertu ziren, bai egoitzarekin, bai bertako langileekin (azpiko argazkian guztiak).

Asier Agirre orduko alkatea pozik azaldu zen, "urtebeteko atzerapena" izan bazen ere, eta "gai ez direnendako zerbitzuaren beharra" aipatu zuen.



## BERGARA

**Elikagaien Bankuko bulegoa zabalik ◀**


Bergarako Elikagaien Bankuen biltegia inauguratu zuten martxoaren 22an, San Juan poligonoan: 200 metro koadroko eraikina. Deba eta Urola eskualdeetako 8.500 herriarri laguntzea zen asmoa, 60 boluntariorekin. Lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalak eta Elikagaien Bankuko presidente Juan Mari Garitanok; Agurte Barruso alkatea eta Markel Olano ahaldun nagusia ere han izan ziren (argazkian guztiak).



## BERGARA

**Labankadaz hil eta ibaira bota zuten 'Mallorca' ►**

*Mallorca* ezizendun Miguel E.R. bergararra hil zuten martxoaren 12an; labankada bat eman ostean ibaira bota zuten, autopsiaren arabera. Handik hiru egunera, haren etxe-kidea zen Domingo izeneko portugaldarra atxilotu zuten ertzainek, Irunen. Bergarako epaitegira ekarri zuten gero deklaratzera, susmagarri nagusia zelako. Izan ere, biak ziren etxe-kideak San Antonio auzoan, eta, auzokideen esanetan, ohikoak ziren bien arteko liskarrak.



ANE LASAGABASTER  
HORTZ KLINIKA



- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia


- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Urte berri on!

Otalora, 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68  
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita





*Zazpi ahizparen gai den oihala  
ebakirikan erditik,  
alde batera hiru soineko,  
utzirikan lau bestetik;  
guraiziakin berezi arren  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi dirala  
zazpiak oihal batetik.*



*Oihaltzat hartu zagun Euskadi  
guraizitzat Bidasoa,  
hibai koxkor bat besterik ez da  
hutsa... balitz itsasoa.  
Elkarren hurbil daude zazpiak,  
muga daitzen da Pausoa.  
Zergatik izan ez behar degu  
famili bakar osoa?*

*Arbola baten zainetatikan  
sortzen diran landareak  
bezala gara Bidasoaren  
bi aldetako jendeak;  
berdinak dira gure jatorri,  
ohitura eta legeak,  
ama euskarak magal berean  
hazitako senideak.*

**EUSKAL PRESOAK**



**EUSKAL HERRIRA**

**Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:**

**Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati,  
Iturriotz, Mondra, Muxibar eta Taupa.**



**ELGETA****ATHLETICEKO LAGUNARTE  
INTXORTAKO LEHOIAK ABIAN**

Martxoaren 23an aurkeztu zuten Athleticeko lagunarte Intxortako Lehoiak. Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat lagunartetako ordezkariak elkartu ziren, baina jokalaririk ez. Geroago, maiatzaren 18an, etorri ziren Llorente, Muniain eta Javi Martinez elgetarrekin egotera.

**BERGARA****HASITA BERGARA ETA ANTZUOLA  
ALDEKO AHT-REN LANAK**

AHTren Bergara-Bergara eta Antzuola-Ezkio ekialdeko zatien lehen harria jarri zuten martxoaren 24an. Lehen zatiak 3,1 kilometro izango ditu eta 34 hilabeteko lanak iragarri zituzten; bigarren zatiak 6,9 kilometro ditu eta 60 hilabete iraungo dute.

**ARRASATE****2,5 MILIOI EURO BIDERATU  
ZITUEN UDALAK UR GASTUETARA**

2.550.000 euroko gastua zuen aurreikusita Udalak martxoan, ura hornitzeko: 891.937 euro Urkulutik Arrasatera eroateko; 200.000 euro hobekuntzak egiteko; 101.000 euro materiala erosteko; 400.000 euro Ur Patzuergoari; eta beste batzuk.

**BERGARA****AITZIBER  
PLAZAOLA  
SEGI-KO KIDEA**

**"Gure ideiak ez dira mehatxu edo errepresioa erabiliz aldatzen"**

**ARRASATE****ARANTZA  
TAPIA  
MUGIKORTASUNEO  
FORU DIPUTATUA**

**"Bus azkarra jarri nahiko genuke, 12 minutuan behin zerbitzua eskaintzeko"**

**ESKORIATZA****Agur hunkigarria egin zioten Manolo Muñozi ►▲**

32 urtean Eskoriatza Kirol Elkarteko presidente izandako Manolo Muñoz hil zen martxoaren 20an. Kiroldegia bete egin zen egindako agur hunkigarrian (goiko argazkia). Hain zuzen, kiroldegi horri Manuel Muñoz izena jartzea erabaki zuen udalbatzak aho batez.

**ANTZUOLA****Antzuola eta Bergara arteko bidegorri zatia inauguratuta ▲**

Antzuolatik Bergararainoko bidegorriaren lehen faseko zatia inauguratu zuten martxoaren 22an, herrigunetik Ariztiberrirainoko zatia. Carlos Ormazabal orduko Garapen Iraunkorreko diputatua izan zen Jose Mari Iturbe eta Pedro Iturbe alkatearekin batera (argazkian).

**Lenizek jai zoriontsuak  
opa dizkizue!**



**Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika  
Bigarren eskuko autoen salerosketa,  
injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa**

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10 Posta-e: [rleniz@euskalnet.net](mailto:rleniz@euskalnet.net)



# Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!



**Arrasateko tabernak**

Ametz · Bengoa · Branka · Goiz alde · Itzala · Kimetz · Lorategi  
Mondra · Okoretegi · Plus Ultra · Rumba · Txoko II





ESKORIATZA



OÑATI

## ARRASATE

**BOST URTEREN ONDOREN, GELMAKO ETXEAK BUKATUTA**

Bost urteren ondoren, gobernu apurketa baten eta epaiketa baten ostean, apirilean bukatu zituzten Gelmako etxeak. Lau etxe bloke eraiki zituzten, 468 etxebizitza guztira: babes ofizialeko bat (131 etxe), eta hiru libre (143, 80 eta 114 etxe).

## DEBAGOIENA

**ASTE SANTUAN %80KO OKUPAZIORA IRITSI GINEN**

Aste Santuko eta Pazko Asteko oporrak pasatuta, balorazio positiboa egin zuten ostatueta eta turismo bulegoetako arduradunek. Kasu batzuetan, %80ko okupazioa izatera iritsi ziren, Aste Santuan; uste zutena baino hobeto.



LEINTZ GATZAGA



ANTZUOLA



ELGETA



ARETXABAleta



ARAMAIO

## DEBAGOIENA

**Debagoienak bat egin zuen Korrikarekin ◀▶**

Apirilaren 14an iritsi zen gurera Korrika 17. Elgetatik sartu zen 05:00 aldera eta milaka herritarrek egin zuten harekin bidea eguerdian Gatzagatik joan zen arte. Oskar Elizburu AEK-ko Debagoieneko koordinatzaileak hauxe esan zuen: "Ikargarria izan da, jende guztia harrituta gertatu da parte-hartzearekin".



Patxi Uribarren.



BERGARA



ARRASATE




# Ana Etxeberria

- Kirol masajista
- Osteopatia
- Esku terapeuta
- Akupuntura

*Zorionak eta Urte berri on!*

Errekalde 6 behea • ANTZUOLA • Tel.: 943 76 60 13



HORTZ KLINIKA  
**UARKAPE**

Nicolas Bermejo doktorea

*Odontologia orokorra*  
*Endodontzia*  
*Inplantologia*  
*Protesiak*

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85



**ARRASATE**  
**UDALA PREST OSPITALEKO**  
**PARKINGARI LEKUA EGITEKO**

Ospitalegunean lur azpiko parkinga egiteko lurzorua lagatzeko prest azaldu zen Arrasateko Udala. Hain justu ere, Osakidetzak Langai ondoko plazapea ikusten zuen egoki 118 lekuko lur azpiko aparkalekua eraikitzeko.

**DEBAGOIENA**  
**MANIFESTAZIO JENDETSUA**  
**SORTU LEGEZTATZEAREN ALDE**

*Eskubide zibil eta politikoen defentsan orain legalizazioa* lelopean jendetza batu zen apirilaren 8an Arrasaten Sorturen legeztatzea eskatzeko. Alderdien Legea bertan behera lagatzeko ere eskatu zuten bertan batutakoek.



**ARETXABALET**  
**BASHERRI KONTSUMO TALDEA**  
**ABIARAZI ZUTEN**

Taldea antolatzeko lanetan hilabete bat lehenago hasi baziren ere, apirilaren 7an egin zuten herriko lehenengo Bashherri kontsumo taldea eratzekeo batzarra. Lehenengo otarreari dagokionez, irailaren 20an jaso zuten.

50

**URTE HOZKAILUAK EKOIZTEN**

Fagor Groupen hotzaren sektoreak 50 urte bete zituen elikagaiak kontserbatzen. 130 herrialdetan daude gaur egun haren produktuak.

**ELGETA**

**Italiarrek Elgeta bonbardatu zuteneko argazki berriak ▼**

Durangoko Gerediaga elkarteko Jon Irabazabalek eta Txelu Angoi-tiak aurkitu zituzten bi argazkiok, Erromako artxibo militarrean. Italiarrek 1937ko apirilaren 22ko Elgetako bonbardaketan ateratakoak dira. Durangoko bonbardaketaren argazki bila joan ziren eta 100 irudirekin itzuli ziren; tartean, Elgetako biak. Sorta hori sekula ikusi gabea zen eta balio historiko handikoa da.



**ARRASATE**

**Harkaitz Canok aurkeztu**  
**zuen zinema-gida ▲**

Arrasateko Udal Bibliotekaren ekimenez, gida monografikoak kaleratzen ditu Arrasateko Udalak. Apirilean zinema-gida kale-ratu zuten eta Harkaitz Cano idazle eta gidoigileak aurkeztu zuen. Hain justu ere, zinema ardatz hartuta, hamar kolabora-tzailereren –Cano izan zen horie-tako bat– ekarpenak jaso zituz-ten gidan, herritarrei zinema proposamenak, aholkuak, orien-tazioak... eskura jartzeko asmoz.



**ARAMAIO**

**Manex Agirre, Arabako bertsolari onena ▲**

Manex Agirrek arantzatxoa kendu eta Arabako bertsolari onenaren txapela jantzi zuen apirilaren 2an, Gasteizko Printzipal antzokian jokaturako finalean. Asier Otamendirekin batera iritsi zen buruz burukora, eta, azkenean, 626,5 puntuko aldea atera zion aramaioa-rrak. Pozik jaso zuen Agirrek txapela eta Jon Agirre aramaioarra-ri eskaini zion, orduan oraindik ere preso zegoen-eta.



**Maulanda**  
*merenderoa*

Urte berri on!

Maulanda auzoa ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



**ANTZUOLA****EA-J-KO BURUEK DIMITITU EGIN ZUTEN HAUTESKUNDE ATARIAN**

Hauteskundeetarako zerrendak osatzeko arazoak izan zituzten eta ez aurkeztea erabaki zuten. GBBk, baina, herritik kanpoko hautagaiz osatutako zerrendak aurkeztu zituen. Hori dela eta, dimititu egin zuten Antzuolako Uri Buru Batzarreko hiru kidek.

**ESKORIATZA****ETXEAK BUKATUTA, ARBIÑOSTE KALEA ZABALDU EGIN ZUTEN**


Arbiñoste kaleko etxebizitzak egiteko lanak bukatu eta gero ireki zuten, bai zirkulazioarendako, bai oinezkoendako. Noranzko bakarra du eta espaloi handia erreka ertzetik paseatzeko. Eta, horrez gainera, 21 aparkaleku egin dituzte hantxe.

**BERGARA****AVILESKO MARGOLARIEKIN ELKARTRUEA EGIN ZUTEN**

Beart artisten elkartearen eskutik, Avilesko margolari talde batek erakusketa egin zuen hilaren 8tik maiatzaren 1era arte, Aroztegi aretoan. Hamar lagun etorri ziren Avilestik euren lanak erakustera. Bergararrek bisita itzultzea zen asmoa.

**ARAMAIO****AGUAZIL PLAZA ATERATZEKO BEHARRA IKUSI ZUEN UDALAK**

Agintaldia hasi zenetik zeukan Udalak udaltzaina jartzeko asmoa. Hala, balio askotariko aguazil plaza atera zuten; udal mezularitzaren banaketa eta udal instalazioen mantentze kontrola egiteko, ekitaldi jendetsuetan zirkulazioa bideratzeko...

**ARANTZAZU**

**IKER USON**  
ARANTZAZU GAUR  
FUNDAZIOKO  
ORDEZKARIA

**"Arantzazu eta espiritualtasuna bereiztea ez da egun bateko kontua"**

**EUSKAL HERRIA****Bailarako ordezkariak Bildu koalizioan ►**

Apirilaren 3an eman zuten eza-gutzera Bildu, EA, Alternatiba eta independenteen koalizioa udal eta foru hauteskundeetarako, Miramar jauregian. Debagoienerako hiru ordezkari ere han izan ziren: Ander Rodriguez (Alternatiba), Pello Urizar (EA) eta Lore Martinez (EA).

Pello Urizarrek hau esan zuen Goienari egindako adierazpenetan: "Gure apustuarekin herritar asko daude alderdi politikoetan ez daudenak".

**ARRASATE****Ahotsak proiektukoei omenaldia ►**

Badihardugu euskara elkarteak aspaldi jarri zuen martxan Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkera katalogatzeko proiektua. Arrasaten, azken hiru urteetan hainbat elkarriketa egin diete, AEDrekin eta Udalarekin elkarlanean, gure hizkeraren historia bizia diren herriko adinekoei; 85 laguni, hain zuzen. Bada, haiei guztiei eskerrak emateko, omenaldia egin zieten hilaren 13an. Egitasmoa ere aurkeztu zuten ekitaldian.

**ESKORIATZA****Arizmendiko neskak Euskal Ligara ►**

Euskal Ligarako txartela eskuratu zuten Arizmendiko neskek hilaren 16an. Partiduaren hasiera lehiatsuaren ostean, erraz gailendu zitzaizkien Arizmendikoak Hondarribia taldeko neskei, 4-0.

Partiduan eta partiduaren ostean une hunkigarriak izan ziren. Hain zuzen, Aritz Elortza entrenatzaileak eta Ane Lur Garin eta Susana Santos taldeko jokalariei beterranoek omenaldia jaso zuten.



Julian Uribeetxeberria Olalde  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zorionak eta  
Urte berri on!



Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI  
Tel.: 943 78 01 54



**BEHI-ALDE**  
**ERKOP**

**BEHI-ALDE, KOOP. E.**

Olaeta-Aramaio (Araba)  
**Zuzenbide postala**  
Apartado 44  
20500 Arrasate

*urte berri on!*



Tel.: 945 45 01 00  
945 45 03 15  
Faxa: 945 45 01 00  
945 45 03 15



**DEBAGOIENA**  
**MANKOMUNITATEA POZIK ATEZ**  
**ATEKOA HASI ETA HILABETERA**

Atez atekoa Antzuolan hasi eta hilabetera pozik azaldu zen Mankomunitatea emaitzekin: "Gai organikoaren %100 bereztuz, errefusa nabarmen jaitsi dugu eta gaikako beste bilketetan oso igoera garrantzitsuak izan ditugu", esan zuten.

**ANTZUOLA**  
**ARGITU EGIN ZUTEN ARMARRIKO**  
**ERREGE KATEATUAREN ESANAHIA**

Ordura arte armarriko errege kateatuaren esanahia zalantzan egon bazen ere, Rosa Aierbe historialari eta heraldikako sari nazionalak haren esanahia frogatzen duen aurkikuntza egin zuten Madrilgo Liburutegi Nazionaleko artxiboan.



**ARRASATE**  
**JOXE**  
**ARRIARAN**  
PILOTARI OHIA

50 urte bete ziren Joxe eta Pako Arriaran Arrasateko anaiek eskuz binakako pilota txapelketa irabazi zutela. Ogetari eta Etxaberi irabazi zieten, 22-16.



**BERGARA**  
**AITOR**  
**MENDIZABAL**  
PILOTARIA

Begarako lau t'erdiko Soralue saria irabazi zuen pilotari gazteak apirilaren 12an. 22-8 gailendu zitzaion Aiherrako Etcheverriri Begarako pilotaria.



**BERGARA**  
**ELENE**  
**ETXANIZ**  
IKASLEA

17 urteko osintxuarrak 2. saria jaso zuen Euskaltzaindiak eta BBKk antolatutako Resurreccion Maria Azkue literatura lehiaketan *Bizitza pintzeladatan* lanarekin.



**OÑATI**

**Bakearen alde abestu zuten 300 ahots zuriak ▲**

Bakearen aldeko kontzertua egin zuten hilaren 30ean Arantzazuko Santutegian haur kantariak *300 ahots zuri* izenburupean. Lau abesbatzak hartu zuten parte: Donostiako Orfeoi Txikiak, Easo Abesbatzak, Bilboko Koralak eta Zaragozako Amici Musikaek. Ekimen hori sortu zen Euskal Herrian politikoki eta sozialki bakearen ideia indartzen ari zen unean, antolatzaileek esan zutenaz.

**ANTZUOLA**

**Gotzainak bedainkatu zuten parrokia berritua ▲►**

Parrokia zaharberritzeko lanak bukatuta, hilaren 16an esan zuten Errukizko Amaren parrokia berrituan lehen meza. Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainak esan zuen meza eta lagun izan zituen parrokiako oraingo eta lehengo abadeak. Eliza berria bedainkatu eta aldea kotsagratu egin zuen. Izan ere, horretarako eskumena gotzainak bakarrik dauka.



**DIODO LASERRA**

- Presta zaitez datorren udaberri-udarako.
- 4-6 saiotan ilea desagertzea ziurtatzen du.

**2x1**  
ORDAINDU DOAN

**DESKONTUAK**



**%50**  
16-22 urte  
bitartekoentzat



**%50**  
Mutilen  
hanketan

*Gemes*  
estetika

Ilargi plaza 2  
Tel.: 943 79 99 18  
ARETXABALETA



*Gabon*  
*Zoriontsuak!!*  
*Beti zuengandik hurbil!*



## ARRASATE

## 'EMAKUMEAK PROTAGONISTA' EKIMENeko LEHEN HITZALDIA

Maddalen Iriartek Edurne Brouard elkarriketatu zuen maiatzaren 17an Kulturaten. Berdintasun Sailak antolatuta, jendaurrean egindako elkarriketa izan zen. "Oso ekimen interesgarria" izan zela esan zuten bi emakumeek.

## ARAMAIO

## AITOR ZABALETA IRABAZLE UDANAKO IGOERAN

Denboraldiko mendiko sariko lehen proba maiatzaren 7an jokatu zen. 90 pilotuk hartu zuten parte proban eta istripuz betetako lasterketa izan zen. Sei ikusle zauritu ziren; bik egunean bertan jaso zuten alta, baina Oñatiko gazte bat UCIn egon zen.

## ARAMAIO

## 575 LAGUN DEBAGOIENeko TRIKITI EGUNEKO BAZKARIAN

Maiatzaren 7a egun euritsua izan zen eta txiki geratu zen Aramaion kiroldegi eta kultura etxe arteko karpa. Aramaio kiroldegi eskola sortu izanagatik omenaldia jaso zuten Angel Mari Lopez de Bergarak, Rosa Kortabarriak eta Juan Luis Nafarratek.

## ESKORIATZA

## HERRIKO KIROLDEGIARI MANUEL MUÑOZ IZENA IPINI ZIOTEN

Hunkigarria izan zen maiatzaren 25ean Eskoriatzako kiroldegian Manuel Muñozen omenez egindako ekitaldia. Herriko kiroldegia kirol elkartearen presidente zenaren izena eman zioten eta familiak lagun askoren babesa jaso zuen.

## ARAMAIO

## Jon Agirre preso aramaioarra aske ▶

30 urte preso eman ostean, maiatzaren 3an askatu zuten Jon Agirre *Elurxuri* preso aramaioarra.

Basaurin, kartzela atarian, ongiatorri hunkigarria egin zioten, baita Aramaion, jaioterrian, eta Arrasaten ere. Kaleko giroan aldaketa handia nabaritu duela esan zuen atera berritan. Haren alde maiatzaren 7an Arrasaten egindako manifestazioa debekatu egin zuten. Istiluak sortu ziren eta Ertzaintzak hiru lagun atxilotu zituen.



## BERGARA

## Seminarioko ondarea, museoaren zain ▶

*Errege Seminarioa: Museoa, zergatik eta zertarako* izenburupean erakusketa zabaldu zuen Bergarako Udalak Aroztegi aretoan. 28 pieza ipini zituzten ikusgai, baina berreskuratutako bilduma historikoa 3.012 piezak osatzen dute.

Ondarea erakustez gain, Museoeko lantaldeak museo baten beharrari buruzko hausnarketa piztu zuen ekimenarekin. Museoaren gida eta posterra ere egin zituzten.



## OÑATI

## Sustrai Aloñak zaleekin ospatu zuen igoera ◀

Oñatiko Sustrai-Aloña saskibaloi taldeak EBA mailako taldea dela ospatu zuen maiatzaren 7an. Kiroldegian aurrena eta Herriko Plazan gero, herri ospakizuna izan zen. Plazan zeuden jarraitzaileei bostekoak emanez sartu ziren jokalaria udaletxera. Bertan, alkatearen eta zinegotzien harrera jaso ostean, balkoira irten ziren. Txalo zaparrada jaso zuten. Jarraitzaileen artean posterrak banatu zituzten. Festa handia izan zen.



*Gabilondo - Arregi*

harategia - urdaitegia

KALEBARREN 5

943 76 62 90

ANTZUOLA

Gabon  
zoriontsuak  
antzuolar  
guztioi!

ILAIA

Ile apaindegia • Estetika

GABON JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33





**ELGETA****DOMINGO ITURBE KALEKO  
ESKOLA ZAHARRA BOTA ZUTEN**

Eraikineko sabaia amiantoa zuela-eta bota zuten eraikina. Libre geratutako orubean autoak aparkatzeko baimena eman zuen Udalak eta orain hasita daude bertan Domingo Iturbeko urbanizazio lanak. Kantxa bat egingo dute bertan.

**ESKORIATZA****FESTA MIKEL ILLARRAMENDI  
ASKE UTZI IZANA OSPATZEKO**

Oñatiarra bada ere, Eskoriatzan du bizileku Illarramendik, eta herrikideek haren aldeko aldarrikapen eguna egin zuten maiatzaren 29an. Illarramendi maiatzaren 19an geratu zen libre 10 urteko espetxe zigorra bete ostean.



**ARRASATE  
JON  
ZUBIAGA**  
AKTOREA

Osoron arrasatearra Garikoitz Kortabitarte izeneko 20 urteko gazte baten paperean ikusi dugu *Buah txabal* antzezlanean. Arrakasta handia izan du.



**ARETXABALETA  
ENERITZ  
URRUTIA**  
LORAMENDI ELK.

Presidente berria du Loramendi elkarteak. Kultura eskola eta ludoteka bultzatzeko helburua du, eta ekintzak antolatzen segituko du herriko eragileekin batera.

**ARRASATE****Mondrako neskak,  
bigarren mailako taldea ▼**

Denboraldi bikaina egin ostean, Mondrako neskak Gipuzkoako txapeldun izatera iritsi ziren. Azken urratsa gelditzen zen, kategoriaz igotzea. Bada, Euskadiko Futbol Federazioaren erabakiz Mondrak ez zuen kategoriaz igotzeko hiruko torneoak jokatu beharrik izan. Arrasatearrek Bizkaiko eta Arabako onenen kontra jokatu behar zuten torneoak, baina Arabatik ez zen inor aurkeztu eta igoera torneoak jokatu barik gelditu zen erabakita.

**ANTZUOLA****Bi herriren arteko  
amodiozko istorioa ►**

*Antzuola eta Aiherra, mugak zubi* liburu baten izenburua da. Aurtan ikusi du argia, eta Antzuolaren eta Aiherraren arteko 25 urteko erlazioa jasotzen du argitalpenak. Bertan, argazkiak, protagonistei egindako elkarrizketak, pasarteak, anekdotak... jaso dituzte, eta arduradunak gustura agertu ziren emaitzarekin. Samurra eta edonork irakurtzeko liburua dela esan zuten. Bi aurkezpene egin zituzten: bata Baionan eta bestea Antzuolan.

**BERGARA****Magaliren aldeko  
ikuskizuna ◀**

Magali Muruamendiaratzen aldeko ikuskizuna egin zuen Porrotx pailazo entzutetsuak Aranzadi ikastolako jolastokian. Herriko hainbat musikariren laguntzarekin ume eta guraso mordo baten aurrean egin zuen saioa. *Make-tume*, *Maite zaitut* eta *San Fermin* kantuak abestu zituzten. Ozen abestu ere, Magalik Galiziatik entzuteko moduan.


Biharamunean, Magaliren aldeko merkatu txikia egin zuten Bergaran.



ARTISAU-PATEAK • AHATEKIAK • FOIE-GRAS • PIPARRA • TXISTORRA

**Zubia pateek urte berri ona opa dizuete!**

Aingeru Guarda Pasealekua 17 • ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 31 • Faxe: 943 71 52 79  
[www.pateszubia.com](http://www.pateszubia.com)



**LIZKER**

Tel.: 943 71 80 52

**AHOLKULARIAK**

**Aholkularitza fiskala**

• **Lan aholkularitza**

• **Kontabilitatea**

• **Zerga aitorpena**

*Zorionak eta Urte berri on!*



**ESKORIATZA****HUHEZINEMAKO SARI NAGUSIA ASIER ALTUNAREN 'ARTALDE'-K**

Huhezinemaren laugarren edizioko sari nagusia –300 euro– Asier Altuna bergararraren *Artalde* film laburrak eraman zuen. Goienak emandako euskarazko film onenaren saria Maialen Sarasuaren *Hemen nago* film laburrarendako izan zen.

**ELGETA****OIHANA KORTAZAR ZEGAMAKO PODIUMAREN GORENERA**

Maiatzaren 29an jokatu zen Zegama–Aizkorri mendi maratoia, eta, hasi eta bukatu, buruan egin zuen lasterketa osoa Oihana Kortazarrek. Denboraldi bikaina egin du elgetarrak; izan ere, ondoren ere proba mordoa irabazi ditu, baita Munduko Kopa ere.

**ARETXABALETA****MAIATZAREN 14AN GIPUZKOAKO LEHENENGO BATAIO ZIBILA**

Aretxabaletako ume bat izan da Gipuzkoako lehenengo bataio zibila jaso duena. Ospakizuna maiatzaren 14an egin zen eta Inaxio Garrok gidatu zuen. Balio legalik gabeko ospakizuna izan bazen ere, akta sinatuta gelditu zen.

**ARAMAIO****UDALAK PLAN OROKORRA ONARTU ZUEN BEHIN-BEHINEKO**

Datozen zortzi urteotan indarrean egongo den Aramaioko Plan Orokorraren behin-behineko txostena onartu zuten Aramaion, maiatzaren 18an. Plan Orokorrak eraiki daitezkeen etxebizitza kopurua mugatzen du, eta eredu soziala finkatu.

**ARRASATE****JULIO GALLARTA MARGOLARIA 94 URTEREKIN HIL ZEN**

Haren ikasle eta jarraitzaileek aurreikusitako omenaldia egin aurretik joan zen paisaia-pintore ezaguna. Hala, hil-osteko omenaldia egin zioten ekainean. Haren lanak Kulturaren ipini zituzten ikusgai, eta liburu ere kaleratu zuten.

**ELGETA****Llorente, Martinez eta Muniain frontoian ◀**

Athleticek kale egin zuen Elgetako lagunarte *Intxortako Lehoiak* martxoan egindako aurkezpen ekitaldian; ez zuen, agindu bezala, inauguraziora jokalaririk bidali. Baina zorra ondo kitatuta gelditu zen bi hilabete geroago. Argazkiak, baloiak, kamisetak... sinatu zituzten Elgetako pilota-lekuan Fernando Llorentek, Javi Martinezek eta Iker Muniainek. Jarraitzaile ugari batu zen frontoian eta zoramena eragin zuten hiru jokalariek.

**OÑATI****Salomon erregea berriz ere jatorrizko lekuan ◀**

Salomon erregea Oñatiko parrokiako Pietatearen kaperan da berriz ere. Erretaulako irudi hori lapurtua izan zen eta urteak eman ditu desagertuta. Ezezagun batek bueltatu ostean itzuli da jatorrizko lekura. Artean, zaharberritze lanak egin dizkiote.

Salomon berreskuratuta, beste irudi bat falta da oraindik. San Migel parrokiako parroko Joxan Larrañagaren esanetan, Elias profetaren irudia izan daiteke falta dena.

**DEBAGOIENA****Udal hauteskundeetan Bildu erabateko garaile ▶**

Maiatzeko udal hauteskundeetan Bildu erabateko gehiengoarekin nagusitu zen Debagoieneko bederatzi herritatik zazpitan. EAJk tradizioz harena izan den feudoa galdu zuen, eta Aralar boto bakararen aldearekin nagusitu zen Elgetan, Bilduren aurretik. Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere indar handiarekin sartu zen Bildu; 22 batzarkide lortu zituen. Zazpi batzarkide debagoiendarrak dira, tartean ahaldu nagusi Martin Garitano.



# ileak

mari karmen ile apaindegia

## Gabon zoriontsuak izan!

san lorentzo 9 a behea  
tel.: 943 72 60 46  
OÑATI

EAJ

PNV

ETORKIZUNEN Degaboiena eraikitzen





**BERGARA**  
**ELA SINDIKATUAREN 100**  
**URTEAK OSPATZEKO EKITALDIA**  
Ekainaren 11n Bilbon egin zuen ELAk mendeurrena ospatzeko ekitaldi nagusia, baina Debagoieneko afiliatuak maiatzaren 12an elkartu ziren Bergaran. Besteak beste, sindikatuaren ibilbidea jasotzen zuen erakusketa zabaldu zuten.



**OÑATI**  
**KEPA**  
**ELORTZA**  
HERRITARRA

**"Sei hilabete eduki naute euskaraz ez artatzeagatik kontsulta baten zain"**



**BERGARA**  
**MARTIN**  
**GARITANO**  
AHALDUN NAGUSIA

**"Apaltasunez eta zintzotasunez kudeatu nahi dugu Gipuzkoako Diputazioa"**



**ELGETA**  
**ahoak, belarriak eta bihotzak ederki mundumiran ▲◀◀**

Munduko ikuskizun eta jan-edanek arrakasta handia izan zuten maiatzako azken aste bukaeran egindako Mundumira jaialdian, eta Munduko kulturen festaren zazpigarren edizioak jende ugari batu zuen Elgetan. Mundu osoko doinuak, zaporeak eta dantzak egon ziren ikusgai eta entzungai eta zapatu gauean lepo bete zen Herriko Plaza Los Delinquentes taldearen kontzertuaz gozatzeko.



**DEBAGOIENA**  
**Esperientzia Eskolakoek Goienagusi sortu zuten ▲**

55 urtetik gorako debagoiendarren artean formazio iraunkorra eta garapen pertsonala bultzatzeko helburuarekin Goienagusi elkartea sortu zuten Esperientzia Eskolakoek. Bizente Zugasti izendatu zuten presidente eta eskolak astean bitan ematen dira. Esperientzia Eskolatik irtendako 60 debagoiendar inguru zeuden egitasmoarekin interesatuta.

**SVMS**

**SERVIMASA**

**Sukaldeko altzariak eta osagarriak**

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO



**Finantzaketa kuota pertsonalizatuak**



## ARRASATE

**JULIO GALARTAREN OMENEZKO ERAKUSKETA KULTURATEN**

Ekainaren 17an Julio Galarta zenaren omenezko erakusketa ireki zuten Kulturateko klaustroan. Koloreen maisua, Arrasatek eman duen margolari handienetarikoa izan zen Galarta. Arrasate Margo Taldeko kideendako inspirazio iturri handia izan zen margolaria.

178

MILIOI EUROKO IRABAZIAK

Mondragon Korporazioak 178 milioi euroko etekinak izan zituen 2010eko ekitaldian, aurreko urteetakoak hirukoiztuta. Hala jakinarazi zuten ekainean.

3.100

OLIO ONTZI GEHIAGO

Eko3r enpresak eta Kutxak etxeko olio jasotzeko 3.100 ontzi gehiago banatu zituzten Debagoienean. Hilaren 3an banatu zituzten ontziak.

## BERGARA

**ESKUBIDE GUZTIEN DEFENTSAN, ELEAK EKIMENA ABIARAZI ZUTEN**

Ekainaren 23an aurkeztu zuten Elea ekimena (Euskal Herri Libre eta Legala). 60 bat lagunek egin zuten bat ekimenarekin, Iralan egindako agerraldian. Bergaran herritarren "eskubide zibil eta politikoei zapalduta" segitzen dutela salatu zuten.



## ESKORIATZA

**Luis Ezeiza eskolak 40 urte bete zituen ►**

1970eko irailean estreinatu zuten Eskoriatzako Luis Ezeiza eskola eta 1971ko udaberrian inauguratu zuten ofizialki. Hala, ikastetxeak 40 urte bete zituela ospatzeko jaialdia egin zuten ekainaren 11n. Urteroko eskolaren jaiari urteurren bereziaren jaia gehitu zitzaion. Egun osorako egitaraua prestatu zuten, nola ez, haurrei protagonismoa emanda: apar festa-irudian-, puzgarriak, jokoak eta musika izan zituzten, besteak beste.



## DEBAGOIENA

**Udalbatza berriak osatu ziren herri guztietan ►**

Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundearen ostean, ekainaren 11n eratu ziren udalbatza berriak Debagoieneko herrietan. Bilduk hartu zituen alkatetza guztiak, Elgetan izan ezik.

Udalbatzen eraketa ekitaldietan normaltasuna izan zen nagusi eta osoko bilkura areto gehienetan hainbat herritar batu ziren ekitaldia bertatik bertara jarraitzeko. Ondoko irudietan, goitik behera, Elgeta, Oñati eta Aretxabaletako udalbatza berriak.



## ARRASATE

**Manifestazio nazionala AHT gelditzeko ►**

Ekainaren 11n manifestazio nazionala egin zen Arrasaten, *AHT gelditzera goaz!* lelopean. Antolatzailleen arabera, 2.500 lagun inguru batu ziren. Manifestazioaren buruan izan ziren, besteak beste, Aralarko batzarkide Rebeka Uebera, Bilduko batzarkide Ander Rodriguez, AHT Gelditu! elkarlanean Mila Elortza eta Zutik-eko Joxe Iriarte *Bikila*. Seber Altubetik irten eta herriko kaleak zeharkatu ostean, amaiera ekitaldia Biteri plazan egin zuten.



## TXOMIN GARAJEA

Mekanika orokorra



Tailer profesionala

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON GUZTIOI!**

IAT/ITVrako prestaketa

Negurako gurpiletan preziorik onena gurean

Lizarraga auzoa. ANTZUOLA. Tel.: 943 78 70 77



IGELTSEROTZA S.L.

**Ondo pasau Gabonak!****ZAHARBERRITZEAK:** Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak

Kalegoi 9-1 • ANTZUOLA  
Tel./ Faxe: 943 76 60 89 • Sakelekoak: 615 76 56 50 / 615 76 56 51  
E-posta: [zabalos@hotmail.com](mailto:zabalos@hotmail.com)





#### ARETXABALETA KURTZEBARRIKO GURASO ELKARTEARENDAKO SARIA

Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak (EHIGE) hezkuntza jardura onen lehiaketa egin zuen lehenengoz, eta Kurtzebarri institutuko guraso elkarteak eskuratu zuen lehen saria: 1.500 euro. 27 elkarte aurkeztu ziren lehiaketara.



#### ARETXABALETA Leizarra: 25 urte bete, eta beste 25 egiteko gertu ▲

Aretxabaleako Leizarra musika eskolak 25. urteurren ekitaldia ospatu zuen ekainaren 18an. Kontzertu berezia egin zuten eta, besteak beste, musika eskolaren sortzaileak omendu zituzten: Jokin Antxia, Eli Izagirre, Ricardo Garro eta Angel Barandiaran. "Hasiera oso gogorra izan zen, baina gaurko irudia ikusita oso harro gaud egin genuenaz", azaldu zuen Garrok. Amaitzeko, egunerako propio sortutako abestia jo zuten eskolako ikasle eta irakasleek.



#### ARETXABALETA Karmele Igartua zenaren azkena aurkeztu zuten ◀


Karmele Igartua zenaren *Itsaso kontra bat* liburua aurkeztu zuten hilaren 17an Arkupen. Ekitaldi xume eta hunkigarria osatu zuen Bergarako Idazle Eskolak, Aitor Furundarenaren akordeoi doinuez eta Iñaki Telleriaren perkusioaz lagunduta. Karmele Igartuaren azken lana ez ezik, Tere Irastortzaren *Eta orain badakit* poesia liburua ere aurkeztu zuten. Irastortza eta Igartua lagun minak izan ziren; bi liburuak elkarren osagarri moduan uler daitezke.



#### ARETXABALETA Hiruatz erakundeak 20 urte bete zituen ►

Aretxabaleako Hiruatz gobernuz kanpoko erakundeak 20. urteurreneko ospakizun ekitaldia egin zuen hilaren 10ean. Erakundeak aurrera eramán dituen proiektuak ezagutarazi zituzten ekitaldian, besteak beste, India, Afrika eta Brasilen girotutako ekintzak egin da. Esaterako, Jalki elkarteak afrikar dantzak egin zituzten. Hiruatzek aurrera egiteko indarrak bildu zituen ospakizunean, eta gustura geratu ziren egunak emandakoarekin.





**Zorionak eta  
Urte Berri On!**

**Podologia Zentroa**

**Bidebarrieta 20 OÑATI    Tel.: 943 53 36 37**  
 Ordutegia: 09:30etik 13:30era - 15:30etik 20:00etara  
[podourratsoinati@gmail.com](mailto:podourratsoinati@gmail.com)



- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoen ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurrira egindako plantillak
- Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak



# URTE BERRI ON!

[www.elgeta.org](http://www.elgeta.org)



**BERGARA****XABALOTE GAZTELEKUA IREKI ZUTEN, LEHENGU EUSKALTEGIAN**

Bergarako gazteendako gazteleku berria ekainaren 9an ireki zuten. Egoitza berriak atek ireki zituenean hainbat gazte joan ziren; orokorrean, "leku polita" iruditu zitzairen. Lehen euskaltegia zegoen lekuan ireki zuten gazteleku berria.

**ESKORIATZA****KORTABARRIA ETA ZAMAKONA, BATERA I. GABEZ TAKARRARAN-EN**

Haritz Kortabarria arrasatearra eta Arkaitz Zamakona otxandioarra batera heldu ziren ekainaren 11n egin zen I. Gabez Takarraran proban. Lagunak dira eta probaren amaieran batera helmugaratzea erabaki zuten. 62 lagunek hartu zuten parte.

**DEBAGOIENA****LABAYEN ETA ZUAZUBISKAR GARAILE BINAKAKO TXAPELKETAN**

Jokin Labayen eta Ane Zuazubiskar arrasatearrek osatutako taldeak irabazi zuen hilaren 19an Arrasateko gatzetxean jokatu zen ibarreko bikotekako bertsolari txapelketa. Umore onez jositako saioa izan zen; 90 lagun elkartu ziren.

**ELGETA****Omenaldia egin zioten Oihana Kortazarri ▶**

Elgetako jaietan Intxortako Lehoiak lagunarteak omenaldia egin zion Oihana Kortazar kirolari elgetarrari. Omenaldia jaso eta hiru egunera, ekainean sasoi onenean zegoela berretsita, Espainiako txapeldun izendatu zuten. Lleidan egin zen II. SkyMarathon Ribagorza Romanica izeneko lasterketan lehena izanda lortu zuen Estatuko onena izatea: "Motzagoa izan arren, oso aldapa gogorrak zeuden", esan zuen probaren gainean.

**ARRASATE ETA BERGARA****Pazkoak eta San Juan jaiek, giro ederrean ▼▲**

Bergarako jaiekin hasi ziren bailarako jai nagusiak. Giro ederra izan zen Pazkoetan, eta hamaika irudi utzi zituzten. Horietako bat, Gutxi eta Felixin omentzeko erraldoiak. Arrasateko sanjuanetan 50 urte bete zituen danborradak; zuzendari guztiak omendu zituzten.

**ANTZUOLA****Urretxu eta Antzuola lotzeko lehen harria ◀**

Gipuzkoako gerrikoaren azken zatia -Urretxu eta Antzuola lotuko dituen- egiteko lehen harria jarri zuten ekainaren 17an. Markel Olano eta Eneko Goia izan ziren ekitaldian; hauxe esan zuen Goiak: "Obra honi esker, hainbat eragozpen sortzen dituen Deskar-gako mendatea eragozteko lortuko dugu". Bidegiren bidez eraikiko den zati hori 2,7 kilometro luze izango da eta 50 milioi euroko inbertsioa eskatuko du. Bi urte eta erdi iraungo dute lanek.

**ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:****BALORAZIO PACKA:**

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

**BABES PACKA:**

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketa 500 euro izango da, gehienez.

**ASISTENTZIA PACKA**

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezeko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

**FLEXIFRANKIZIA**

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

**GAINERA...**

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.

**ZURICH**M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela**Urte Berri On!**

Montxon kalea 5 behea  
20560 OÑATI  
Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20  
Faxa: 943 78 31 36



**BERGARA**  
**BIGARREN ESKUKO AUTOEK**  
**HARTU ZUTEN SEMINARIOA**

1000 Aukera taldeak antolatuta bigarren eskuko autoen azoka egin zuten Seminarioan. Antolatzaileak pozik geratu ziren azokak emandakoarekin: "Auto kontzesionarioak eta jabe partikularrak oso pozik joan dira", esan zuen Aitor Iturriagagoitiak.

**ESKORIATZA**  
**HARRESIA BERRESKURATZEN**  
**HASI ZIREN ATXORROTZEN**

2009an abiarazitako indusketen ostean, hirugarren faseko lanak hasi ziren ekainean Atxorrotzeko harresian. Bi lan mota egin zituzten: batetik, harresia eta 2010ean aurkitutako uraska finkatu; eta bestetik, indusketa lanak egin alboko haitzean.




**OÑATI**  
**JOSE ANTONIO**  
**AZPIAZU**  
HISTORIAGILEA

Jose Antonio Azpiazuk *Gaixotasun beltz hori. Euskal Herria hondatu zuen izurritea (1560-1600)* liburua aurkeztu zuen hilaren 21ean.



**OÑATI**  
**JON**  
**AIASTUI**  
IDAZLEA

*Kontaktuak* izeneko lanagatik Euskal Herriko Unibertsitatearen XIX. Narrazio Labur Fantastikoen Lehiaketa irabazi zuen Jon Aiaztui idazle oñatiarrak.



**BERGARA**  
**IRENE**  
**ALBERDI**  
ULMA-KO  
PRESIDENTEA

Ekainaren 17an Ulma Taldeak ohiko batzar nagusia egin zuen eta egun hartan Irene Alberdi bergararra aukeratu zuten presidente kargurako.



**BERGARA**  
**Orkestra Sinfonikoaren 25 urteak gau bakar baten ►▲**

Bergarako Orkestra Sinfonikoak 25. urteurrena ospatzeko kontzertua egin zuen hilaren 25ean. Lepo bete zen Udal Pilotalekua, eta emozioz jositako kontzertua izan zen. Errepertorioari dagokionez, aspaldiko abestiak izan ziren protagonista, eta, horrekin batera, hasieratik orkestrako kide diren 13 musikariei eskerrak eman zizkieten; horien artean, Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariari.



**DEBAGOIENA**  
**Martin Garitano, Gipuzkoako ahalzun nagusi ▲**

Bilduko Martin Garitano Gipuzkoako ahalzun nagusi izendatu zuten ekainaren 26an Donostiako Batzar Nagusietan. Ekitaldia "ilusioz beteta" bizi izan zuen Garitanok: "Etxe honetako ateak irekiko dizkiegu herritarrei". Diputazioko gobernuak bi oinarri finkatu zituen ekitaldi hartan: ongizatea bermatzea eta parte-hartzea sustatzea. Alderdien arteko harremanak aldatu egingo zirela iragarri zuten.



WWW.FELSINEE.NET

# Felsinee

**IBARGARAI ETORBIDEA 17, BEHEA**  
**20570 BERGARA · Tel.: 943 53 44 53**

**FISIOTERAPIA eta ERREHABILITAZIOA:** Fisioterapia orokorra  
Drainatze linfatikoa · Kinesio-tape Bendaje neuromuskularra  
Tecarterapia · G.A.H.-R.S.F. · R.P.G.-S.G.A. · Kirol-fisioterapia  
Fisioterapia Perineala · Fisioterapia Obstetrikoa  
(Haurdunaldiko minak - Erditze aurreko eta ostekoa)

**MEDIKUNTZA ERREHABILITATZAILEA**

**PODOLOGIA:** Etxez-etxekoa ere bai

**ELIKADURA eta DIETETIKA**

*Inkontinentzia bezalako gaitzak ere tratatzen ditugu;  
Partikular zein aseguruekin.*

*Beti klinika, mediku espezialista edota beste profesionalekin  
harremanetan, taldeko lana da garrantzitsuen!!!*

**LEIRE GOROSABEL · AINHOA ELORZA · ENERITZ OLABARRIA**  
**MIREIA GONZALEZ · AINITZE AGIRREZABALA · AMAIA GOENAGA**  
**NEREA ARANBARRI · SAIOA ETXABARRI**



*Eskerrik asko guran jarritako konfidantzagatik.*  
*Zorionak eta Ute Berri On bihotzez!!!*





## DEBAGOIENA

**UDAL ORDEZKARI BERRIEK KARGUAK HARTU ZITUZTEN**

Oñatin 12 batzordetan antolatu zuten Udala hilaren 7ko osoko bilkuran. Gatzagan, berriz, karguak banatu eta alkate kargua Mikel Gonzalezek hartu zuen. Aretxabaletan, Udal Gobernuak Bilduk eta Aralarrek osatu zuten, bien artean.

## DEBAGOIENA

**DEBAGOIENDARRAK LEZETXIKIKO INDUSKETA LANETAN**

Udaro bezala, Lezetxikiko indusketa lanak egin zituzten ekainetik uztailera bitartean. Lan hartan ibili ziren Debagoieneko lau herritar: Amaia Agirre eta Aitor Juaristi arrasatearrak, David Cano oñatiarra eta Martin Arriolabengoa aramaioarra.

## OÑATI

**KORRIKA TXANTXIKUTARRAK TALDEAREN ESTREINALDIA**

Taldea bi hilabete lehenago sortu bazuten ere, talde moduan estreinakoz uztailaren 3an parte hartu zuten lasterketa baten: Torreauson, hain zuzen ere. Taldearen helburua lagunekin korrika egitea da, lehiaketak albo batera utzita.



## DEBAGOIENA

**Rikardo Arregi sari nagusia, Goienarendako ▲**

Kazetaritzako 23. Rikardo Arregi saria jaso zuen Goiena Komunikazio Taldeak. "Kalitatea, berrikuntza eta eredu garritasuna" izan ziren sari nagusia erabakitzerakoan epaimahaiak hartutako irizpideak. Goienak iazko urritik aurrera sarea ardatz hartu eta hedabide multimedia integral moduan "hezurmamitu eta Interneteko webgunea berritu eta egokitzeko" ekimena saritu zuen epaimahaiak. Inaxio Arregi ohorezko saria jaso zuen.



## DEBAGOIENA

**Jaiak Eskoriatzan, Elgetan, Antzuolan eta Aramaion ►▲**

Eskoriatzak San Pedro jaiak ospatu zituen neurrian, Elgetak Ferixa Nagusikoak ospatu zituen eta Aramaioak, San Martinak. Antzuola ere ez zen atzean geratu: emozioz eta omenaldiz betetako alardea ospatu zuten. Batean eta bestean jai giroak ez zuen hutsik egin.



**LANDETxea - CASA RURAL**  
**EGUZKITZA**



Eibarreko errepidea z/g  
Tel. eta faxa: 943 78 90 84 Poltsikokoa: 679 41 66 97  
e-posta: casaeguzkitza@hotmail.com



**Gabon zoriontsuak guztioi!**



ETA ORAIN ZERBITZU BERRIEKIN:  
**ZELULAK**  
**BIRSORTZEKO**  
**KAPSULA**  
**ETA MASAJEAK**



*Antzuolako Udalak  
jai zoriontsuak eta urte  
berri on opa dizkizue  
herritar guztioi!*



**Antzuolako udala**  
[www.antzuola.com](http://www.antzuola.com)



**BERGARA****BELCEBLUES TALDEA  
HONDARRIBIKO JAIALDIAN**

Belceblues taldeko kideek Hondarribiko nazioarteko blues jaialdian parte hartzeko gonbita jaso zuten. Besteak beste, musikariek Johnny Winter handiarekin jo eta kontzertu didaktikoa eskainiko zuten. Bergararrak pozik geratu ziren.

**OÑATI****ZAHOR MARKA ARLUY  
GAILETA-ENPRESARENTZAT**


Natrak eta Arluyk aurre-akordioa egin zuten salmenta egiteko. Bi enpresek esan zuten salmentak euren negozio-estrategiekin bat egiten zuela. Bateratzea abuztuaren 1ean egikaritu zen. Bateratzeak Espainian Zahorren irudia indartzen duela esan zuten.

**ARRASATE****2,5 MILIOI EUROKO ZIGORRA  
MEKANIKALANENTZAT**

Gasteizko merkataritza epaitegiak 2,5 milioi euro ordaintzera zigortu zuen Mekanikalan enpresako jabea, bere enpresa nahita porrotera eraman zuela ebatzita, bere langileekin eta hornitzaileekin zituen zorrak ekiditeko asmoz.

**ARRASATE****MAIALEN AXPE  
PERTIKA JAUZIAN  
ESPAINIAKO  
TXAPELDUNA**

Neguan entrenatzera kanpora joan behar izaten dutela esan zuen kirolari arrasatearrak, koltxoneta Musakolako frontoira sartzeko baimenik ez dutelako.

**BERGARA****MIGUEL  
LAZPIUR  
CONFEBASKEKO  
PRESIDENTE OHIA**

Uztailaren 20an utzi zion Confefaskeko presidente izateari, eta, besteak beste, agintariei, industria jarduera bultzatzen laguntzeko politikak eskatu zien.

**DEBAGOIENA****Iban Velasco eta Markel Irizar, Tourrean ▼▲**

Iban Velascok ez zuen zorte onik izan, eta, bosgarren etapa amaitzeko 15 kilometro falta zirela, jausi eta eskuineko lepauztaia hautsi zuen. Markel Irizar oñatiarrarentzat lehenengo Tourra izan bazen ere, esan zuen ez zela bere ametssetako Tourra izan.

**ARAMAIO****Burdin Aroko aztarnen bila  
hasi ziren Murugainen ▲**

Burdin Aroko herrixka baten eta Espainiako gerrako trintxeren aztarnak topatzen saiatzen hasi ziren. Zortzi arkeologo aritu ziren hilabetez lanean. Proiektuaren muina zen Kristo aurreko lehenengo milurtekoan herrixka harresitu bat zegoela baieztatzea.

Aztarnak topatzeko lanak egiteaz gain, herritarrek indusketan nondik norakoak jakiteko hitzaldiak egin zituzten arkeologoei.

**ANTZUOLA****Uzarragako elizatea,  
erortzeko arriskuan ►**

Uzarragako elizatea erortzeko arriskuan zegoela eta hesitu egin zuten. Donostiako Elizbarrutiak hartutako erabakia izan zen, eta, Uzarragakoarekin batera, Gipuzkoako beste elizate zahar batzuk ere itxi zituzten. Bertan eskaini zen azken elizkizuna sanjuenetakoa izan zen.

Eraikina itxi eta gero, arduradunek sagrarioa eta gurutzea Antzuolako elizara eraman zituzten. Bestelako materiala ere beste eliza batzuetan banatu zuten.

**ETXEEN SUSTAPENA ETA ERAIKUNTZA****PABILIOIAK****ZAHARBERRITZEAK****URBANIZAZIOAK****PROIEKTUAK****BERGARA  
943 76 11 23**

Maztarreka 14-16, BERGARA  
Tel. 943 761123 • Fax. 943 763041  
goitu@grupogoitu.com  
www.grupogoitu.com

**Zorionak eta urte berri on!**

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 23 45 / San Juan auzoa 11 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70  
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com



**ARETXABALETA****BI HILDAKO SAIHESBIDEAN  
IZANDAKO ISTRIPUAN**

Bi autok elkar jo zuten eta bi gidariak hil egin ziren. Gidari bat eskoriatzarra zen eta bestea mondragoetarra. Ezbeharra Errotaetxe baserriaren aldamenean gertatu zen, 21:10ean. Bi gidariak burdina artean harrapatuta geratu ziren.

**BERGARA****ERREILENO ETA TOSTOIEN  
KOFRADIA DESEGIN EGIN ZEN**

Uztailaren 10ean iragarri zuen Tostoi eta Erreilenoen Kofradiak desegin egiten zela. Hamaika urte iraun zuen kofradiak eta hamabigarren urtemuga ospatu aurretik desegin zen. Jesus Jauregi kofradiako lehendakariak penaz eman zuen berria.

**ARRASATE****LAPURRETA EGIN ZUTEN  
ARTE ETA SUDC ELKARTEETAN**

Lapurreta ugari gertatu ziren herrian. Baina ordura arte partikularrei lapurtzen bazieten ere, uztaileko lehen asteburuan herrian pisu handia duten ARTE eta SUDC kultura elkarteek egoitzetan sartu ziren lapurrak; erremintak lapurtu zituzten.

**ARETXABALETA****DEBAGOIENeko I. FUTBOL  
CAMPUSA AMAITU ZEN**

Geroa sortuz campuseko lehen edizioak 130 gaztetxo elkartu zituen. Ekimena uztailaren 15ean amaitu zen eta Igor Arenatza ekimenak izandako erantzunarekin pozik agertu zen: "Oso gustura geratu gara". Campusa Realak babestu zuen.

**ARRASATE****FRESKURA EKIMENA ABIAN  
JARRI ZUEN TXATXILIPURDIK**

Udako oporraldi giroan euskara hutsez irakurri eta ondo pasatzeko helburuarekin jarri zuen Txatxilipurdik ekimena. Hala, Musakolako kanpoko igerilekuetan euskara hutsezko irakurgaien eta mahai jolasen doako txokoa jarri zuten.

**ANTZUOLA****Aitor Mendizabalen lehen  
partidu profesionala ▶▶**

Aitor Mendizabal pilotari antzuolarrak lehenengo partidu profesionala jokatu zuen Zarautzen uztailaren 17an. Antzuolatik 100 bat lagun joan ziren Zarauzko pilotalekura, herrikideari babesa ematera. Mendizabalek garai-penarekin hasi zuen profesionaltako ibilbidea.

Ceciliorekin batera, Apezetxea eta Arruti garaitu zituen antzuolarrak (22-14). Zaleak eta pilotaria bera gustura geratu ziren lortutako emaitzarekin.

**DEBAGOIENA****Ander Rodriguez eta Larraitz Ugarte, Garitanorekin ▲**

Ander Rodriguez eta Larraitz Ugarte Martin Garitanoren Foru Gobernuan sartu ziren. Rodriguez Gizarte Politikako diputatu izendatu zuten eta Ugarte Mugikortasun eta Bide Azpiegitura diputatu. Itziar Lamarain eta Lore Martinezek ere kargua hartu zuten, Arabako Euskal, Kultura eta Kiroleko diputatu eta Gipuzkoako Informazio Gizarterako Sistemen zuzendari, hurrenez hurren.

**ALMACENES ARRASATE**

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.



**2**  
URTE

1000 b/min  
6 Kg

**A<sup>+</sup>** Sailkapen energetikoa  
**SUNNY 610 GARBIGAILUA**  
**275 € edesa**



**2**  
URTE

1200 b/min  
6 Kg

**A<sup>++</sup>** Sailkapen energetikoa  
**3F-2612 GARBIGAILUA**  
**315 € FAGOR**



**2**  
URTE

1200 b/min  
8 Kg

**A<sup>+++</sup>** Sailkapen energetikoa  
**F-2812 GARBIGAILUA**  
**430 € FAGOR**



**2**  
URTE

**A<sup>+</sup>** Sailkapen energetikoa  
**2LF-013SX ONTZI-GARBIGAILUA**  
**395 € FAGOR**



**2**  
URTE

8 Kg

**B** Sailkapen energetikoa  
**1SF-84CE KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA**  
**399 € FAGOR**



**2**  
URTE

**A** Sailkapen energetikoa  
**LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X  
INDUKZIO PLAKA HOLLY-13S**  
**625 € edesa**



**2**  
URTE

**A<sup>+</sup>** Sailkapen energetikoa  
**STA 1410 B/N LABEA  
ETA BITROZERAMIKA**  
**360 € aspes**



**2**  
URTE

1440  
x 545  
x 600

**A<sup>+</sup>** Sailkapen energetikoa  
**ZEN-F211 HOZKAILUA**  
**310 € edesa**



**7**  
URTE

1850  
x 600  
x 600

**A<sup>+</sup>** Sailkapen energetikoa  
**"BRITA" OPARI  
FFJ-6725 HOZKAILUA**  
**575 € FAGOR**



**7**  
URTE

2000  
x 600  
x 600

**A<sup>+</sup>** Sailkapen energetikoa  
**NO FROST  
FFK-6835X HOZKAILUA**  
**675 € FAGOR**

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabera energia aurreztea.

**A<sup>+</sup>** >>> 70%  
**A** >> 45%  
**B** > 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**  
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.



**BERGARA**  
**ANDRES DE MADARIAGA**  
**EZAGUTZEKO BISITAK, ABIAN**

Andres de Madariaga ezagutzera emateko bisitak antolatzen hasi zen Udala. Bisitak 90 minutu inguruko iraupena zuen eta bereziki hiru espaziotan egiten zen: Jesuiten elizan, San Martin Agirre plazan eta Bidekurutzeta plazan, hain zuzen ere.



**LEINTZ GATZAGA**  
**Gurelek Umeen Eguna**  
**ospatu zuen ►**

Umeei eskaini eta familia giroan igarotzeko eguna antolatu zuen Gurel guraso elkarteak, lehen aldiz, uztailaren 9rako. Egun osoko egitaraua prestatu zuen elkarteak, eta parte-hartzaileak gustura geratu ziren.

Gatzagako umeek egindako ongietorriarekin hasi zen eguna, eta antzerkiarekin amaitu. Besteak beste, Dorletako santutegia eta gatz museoa bisitatu zituzten. Bestelako jolasak ere ez ziren falta izan.

**OÑATI**  
**'Gerrako garrak Oñatin' ikus-entzunezkoa ◀▲**

Oñatin 36ko gerran bizi izandako errepresioa jasotzeko *Gerrako garrak Oñatin* ikus-entzunezkoa grabatzen hasi ziren, Kepa Aranbururen zuzendaritzapean. Grabazioa egiteaz gain, Gogoratu Guran Taldea liburua idazten ere hasi zen, Intxorta 1937 kultura elkartearekin batera. Aitor Perosterona atrezzoaz arduratu zen.



**DEBAGOIENA**  
**HAMAIKABAT ALDERDIAK**  
**BATZAR BEREZIA EGIN ZUEN**

Uztailaren 30ean Hamaikabat alderdiak batzar berezia egin zuen. Biler hartan, alderdia hurrengo hauteskundeetara ez aurkezteko erabakia hartu zuten alderdikideek. Erabakia maiatzeko hauteskundeetako emaitzek eragindakoa izan zen.

**19**  
**EGUN**

Uztailako 19 egunetan egin zuen euria. Meteorologia datuak aztertuz gero, azkenekoz 1960an jaso ziren horrelako datuak; duela 41 urte, alegia.



**ARRASATE**  
**Big Bang taldeak 10 urteko ibilbidea errepasatu zuen ▲**

Arrasate Musikaleko Big Bang taldeak 10. urteurren kontzertua eskaini zuen uztailaren 1ean. *AM Big Band Festibala 10 urte* izenburupean, taldeak 2011ko Udazabal programari hasiera eman zion, urteurrena ospatzeaz gain.

Zigor Martinez Big Bandeko zuzendariaren aginduetara, emaldia ondo baino hobeto atera zen eta taldea gustura geratu zen.



# OGIZUN

koop. elk.

## okindegia

# Gabon jai zoriontsuak!

Argazkia Kiñu

Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 21 37

Obradorea, Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13



## BERGARA

## ARRIZURIAGAKO BERDEGUNA ZABALDU ZUTEN

Lorategian gutxieneko egokitzapen-lan batzuk egin ondoren, abuztuaren 8an Arrizuriagako berdegunea zabaldu zuten herritarrendako. Arrizuriaga balio handiko ondarea dela nabarmendu zuten Udaleko arduradunek.

## OÑATI

## XABIER LETEREN OMENEZKO EMANALDIAN, 1.300 LAGUN

Abuztuaren 11n 1.300 lagun batu ziren Arantzazun *Xabier Leteren oroimenez* izenburuko emanaldian. Kantari eta olerkari oiartzuara zenaren oroimenez, hiru ordu eta erdi luzez jardun zuten Euskal Herriko kantari ezagunenetako batzuek.

## GASTEIZ

## BUESA ARENAN LANEAN, LKS ENPRESAK ZUZENDUTA

Gasteizko Buesa Arena pabiloiaren teilatu berria arrakastaz ezarri zuten abuztuaren hasieran. Kirol pabiloia handitzeko proiektuaren laguntza teknikoa eta obra zuzendaritza LKS enpresaren esku egon da.

## ELGETA

## MAIALDE LANDETxea, HOTELAREN ARO BERRIA

Elgetako hotelak beste etapa bati ekin zion abuztuan. Maialde Landetxea izenarekin, Jesus Kalboetxeaga eta Izarra Arriaran ditugu arduradun berriak. Eskarmentu handia daukate ostalaritzan, urte askoan Zuhaizti tabernan jardun zuten-eta lanean.

21

## LANGABE GEHIAGO

Abuztuan gora egin zuen langabezia tasak ibarrean. Uztailean baino 21 langabe gehiago ziren: 2.886 langabe zenbatu zituzten abuztuan gurean.



## BERGARA

## Sutea Paotxa ostatuko baserrian ►▲

San Juan auzoko Paotxa ostatuko baserria sute baten ondorioz erre zen abuztuaren 18an, goizaldean. Ostatua bera, alboko etxea eta ermitaren teilatuaren zati bat erre ziren. Kalte pertsonalik ez zen gertatu. Goizeko lauretan izan zen sutea eta suhiltzaileek eguerdira arte jardun zuten hura itzaltzen. Goienari orduan egin-dako adierazpenetan, jabea konbentzitu zegoen nahita erre zutela baserria, eta gertatutakoa argitu arte ez zuela etsiko.



## ARRASATE

## Kolonbiako munduko txapelketari agur ▲

Aitor Fernandez arrasatearrak Kolonbiako 20 urtetik beherakoen Munduko futbol txapelketa utzi behar izan zuen. Entrenamendu baten lesionatu zen Athleticen atezaina. Julen Lopetegui Espainiako hautatzaileek hitz onak besterik ez zuen izan arrasatearrarendako. Txapelketako lehenbiziko partiduan, Costa Ricaren aurka (4-1 Espainiaren alde), hasierako hamaikakoan izan zen arrasatearra.



|                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; width: fit-content; margin: 0 auto;"> <b>Husqvarna 450e</b><br/> <b>499 €</b><br/>         Prezioa lehen: 601 €<br/>         Aurreztu 102 €       </div> |  <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; width: fit-content; margin: 0 auto;"> <b>Husqvarna 440e</b><br/> <b>399 €</b><br/>         Prezioa lehen: 469 €<br/>         Aurreztu 70 €       </div>   |
|  <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; width: fit-content; margin: 0 auto;"> <b>Husqvarna 359</b><br/> <b>599 €</b><br/>         Prezioa lehen: 789 €<br/>         Aurreztu 190 €       </div>  |  <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; width: fit-content; margin: 0 auto;"> <b>Husqvarna 372XP</b><br/> <b>699 €</b><br/>         Prezioa lehen: 949 €<br/>         Aurreztu 250 €       </div> |

Eskaintza baliagarria 2012/01/31 arte. PREZIOEK BEZ-A BARNE DUTE

## UDAZKEN-NEGUA | 2011





# comercial BRUNET

www.comercialbrunet.com

Telleria, 2 • Labegaraiaeta

Tel.: 943 76 31 52 • Fax: 943 76 70 12

brunett@telefonica.net

BERGARA - GIPUZKOA







#### BERGARA ERREPIDEKO ISTRIPIU BATEN GIZONEZKO BAT HIL ZEN

Pertsona bat hil eta sei lagun zaurituta gertatu ziren abuztuaren 9an, Bergaran, GI-632 errepidean bi autok elkar jo ondoren. Hildako gizona emakume batekin ari zen bidaiatzen, Frantziako matrikula zuen auto baten.

#### DEBAGOIENA ABUZZTUA OSO HILABETE ONA IZAN ZEN TURISMORAKO

Abuztua oso hilabete ona izan zen turismoarendako: Oñatin eta Bergaran 2010ean baino bisitari gehiago jaso zituzten. Oñatin, iaz baino 1.295 bisitari gehiago. Bergaran, Andres de Madariaga-ren hilobia bisitatzeko bisitak arrakastatsuak izan ziren.



#### ARAMAIO ENRIQUE VAZQUEZ PARROKOA

Enrique Vazquez Aramaio parrokoak egin zuen Aita Santuak udan Espainiara egindako bisitarako ereserki ofiziala, *Tinko fedean*.

#### ARETXABALETA

#### Jai giroa nagusi Andramaixetan ▼▲

June Gaztañaga eta Aritz Zugasti alkate txikiek eman zieten hasiera Aretxabaletako jaiari, abuztuaren 14an. Alkate txikiekin batera udalbatzak ere egin zion agurra ikurrinari, eta herritar ugari batu zen udaletxe ondoan jaiari hasiera emateko. Euskal giroko musika eta jai giroa izan ziren nagusi Andramaixetan.



#### BERGARA

#### Ramadanaren bukaera ospatzen ►▲

Ramadanaren bukaera ospatu zuten Bergarako meskitan abuztuaren amaieran. Pakistandar jatorriko musulmanek kudeatzen dute Ozatiko meskita eta 250 lagun inguru (Debagoienekoak ziren nagusi) batu ziren abuztuaren 30ean egindako otoitzaldian eta bi txandatan egin behar izan zuten otoitz. Meskitako arduradunak oso pozik azaldu ziren jasotako erantzunarekin.



# GOIZPER

KOOP. ELK.



Antigua kalea 4 - ANTZUOLA

Tel.: 943 78 60 00

www.goizper.com - goizper@goizper.com

*Goizper-ek antzuolar guztioi, gabon jai zoriontsuak opa dizkizue!  
Zorionak eta urte berri on!*

#### ● IHINZTADURA DIBISIOA



#### ● INDUSTRIA DIBISIOA





## ARRASATE

**2013-2016 PLANA ONARTU ZUEN MONDRAGON TALDEAK**

Irailaren 28an Mondragon Taldeak egindako batzarrean, 2013-2016rako politika onartu zuten. Kooperatiben lan estrategiak lantzeko abiapuntua ezartzea zen txostenaren helburua. Gainera, lan ildoak zehaztu zituzten.

## OÑATI

**PATXI LOPEZ LEHENDAKARIAK INAUGURATU ZUEN IKASTURTEA**

Mondragon Unibertsitatearen ikasturtea inauguratu zuen Patxi Lopez lehendakariak irailaren 16an Oñatiko Enpresagintza Fakultatean. Lehendakariak nabarmendu zuen krisi garaian ezinbestekoa dela ekintzailetasuna sustatzea.

## ARRASATE

**LAU ARRASATEAR ATXILOTUTA, KUKUTZAREN HUSTEAN**

Irailaren 21ean hustu zuen Ertzaintzak Bilboko Kukutza III gaztetxea. Bada, hustearen ondoren atxilotu zituztenen artean lau arrasatear zeuden. Gaztetxe barruan erresistentzian aritu ziren, eta egunean bertan aske geratu ziren.



## OÑATI

**Diputazioko eta Udaleko ordezkariak Arantzazun ▼**

Agintari berriak izan dira aurten, irailaren 9an, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean. Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Oñatiko Udal Gobernuordekariak izan ziren Arantzazun; ez, ordea, Jaurlaritzakoak. Basilikako atarian bide ezberdinak hartu zituzten agintariak: batzuk elizara sartu ziren eta beste batzuk, Udal Gorbenuko kideak eta Larraitx Ugarte diputatua, esaterako, euskal presoan aldeko elkarretaratzeratu ziren garaian.



## ANTZUOLA

**Matz-Erreka kooperatibak 50 urte bete ditu aurten ▲**

Lucio Agirrezabal, Julian Alberdi, Asensio Azkarate eta Inaxio Aristik sortu zuten Matz-Erreka enpresa 1961ean. Torlojuak eta automobilerako osagarriak egiten hasi ziren.

Kontu horiek, negozio ezberdinen sorrera eta bilakaera eta beste zenbait jasotzen dituen liburua aurkeztu zuten irailaren 6an Torresorotan. Gaur egun lau negozio ildo ditu Matz-Errekak. Elkarlanean osatu dute 50. urteurreneko liburua.

## ARRASATE

**Basque Culinary Center inauguratu zuten ▼**

Mundu mailan erreferente izateko bokazioarekin jaio den Basque Culinary Center, goi mailako gastronomia zientzien fakultatea inauguratu zuten irailaren 26an Donostian. Basque Culinary Center izango da ikertegi eta berrikuntzarako zentroa izango duen munduko gastronomia zientzien fakultate bakarra. Miramonen dago. MUREN hezkuntza eskaintzan sartzen da. Urriaren 2an hasi zuten ikasturtea 56 ikaslek.



## BERGARA

**'Bertsolari' filma aurkeztu zuen Asier Altunak ▲**

Irailaren 17an aurkeztu zuen Asier Altuna bergararrak *Bertsolari* dokumentala Donostian. Bi urte eta erdiko lana izan du *Kixi*-k dokumentala egiteko. Edozeinek ulertzeko modukoa egin gura izan du *Bertsolari* bergararrak. Estreinaldi eguna polita izan zela azaldu zigun, baita filmak harrera beroa izan zuela ere. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Jon Sarasua dira, besteak beste, filmean agertzen diren protagonistak.

**ZANGITU margoak**

Irala z/g **BERGARA**

Tel.: 943 76 19 54

**IRU margoak**

Araba etorbidea 3 **ARRASATE**

Tel.: 943 79 11 71

**deco-tex****ZANGITU alfonbrak**

Telesforo Aranzadi 2 **BERGARA**

Tel.: 943 76 08 69



**Etixerako ederrena, Zangitun**

**ELAY Taldea****BIKAITASUNARI BEGIRA EGINDAKO LANA**

Lizarragako Hiribidea z/g  
20577 Antzuola  
Gipuzkoa  
Tel.: 943 76 61 00  
Faxa: 943 76 62 62  
[www.elay.com](http://www.elay.com)



**ARAMAIO**  
**EUSKARAK BULTZADA HANDIA JASO ZUEN TXIRRITOLA EGUNEAN**  
Txirritola eguna ospatu zuten irailaren 18an Aramaion. Eguerdian hasi zituzten ekimenak, bertsolariekin, eta ondoren sagardogileen txanda etorri zen. Urteko sagardoa ireki zuten eta Paulino Ibabek sagar zukua egin zuen, gaztetxoendako.

**ARAMAIO**  
**DEBUTA EGIN ETA GARAIPENA LORTU ZUEN ANGELA VILARIÑOK**  
Aramaio rallysprinta Angela Vilariñok irabazi du aurten. Duela bi urte anaiaren kopilotua izan zen eta pilotu moduan aurten debuta egin eta irabazi egin du. Tramu berria inauguratu zuten, gainera: Arriolaz gain, Arexolatik ere pasatu da lasterketa aurten.

**BERGARA**  
**BERGARAN IZANDAKO AUTO ISTRIPUAN HILDAKO BAT**  
Irailaren 1ean Elorregitik Bergararako bidean auto batek eta autobus batek talka egin zuten; ondorioz, auto gidaria –Benito Davila, Bergarako ehorzlea– hil egin zen. Udaleko langileek euren samina erakutsi zuten udaletxe aurrean bilduta.

**40**  
**URTE**

Oñatz dantza taldeak 40. urteurren ospakizunak egin zituen irailaren 3an. Ia 300 lagun egon ziren bazkaltzen, eta dantzekin girotu zuten eguna.

**ARRASATE**  
**BARBERENA ETA OCEJAREN LIBURU-DISKOA EGILEAK**  
Eneko Barberenak eta Mikel Ocejak Martin Larralde liburu-diskoa aurkeztu zuten irailaren 29an gaztetxean. 40 testu eta 11 abestiko lana da.



**BERGARA**  
**'Monzon' pastoral egin zuen Larraineko herriak** ▶▶  
Irailaren 17an eskaini zuen Larraineko herriak *Monzon* pastoralak. 2.000 pertsona inguru batu zituen pastoralak. Johane Bordaxar idazleak euskal politikariaren bizitzako pasarte garrantzitsuenak jaso zituen ikuskizunean, eta Monzonen abestiak ere kantatu zituzten.



**ESKORIATZA**  
**Batukada taldea osatu zuten Eskoriatzan** ◀  
Eskoriatzako Barrunba Kelele batukada taldeak Leintz Gatzagan egin zuen emanaldia irailaren 11n. San Pedroten "ekitalditxo" egiteko asmoz osatu zuten taldea, eta, gustura geratu zirenez egingakoarekin, aurrera segitzeko asmoa erakutsi zuten. Hala, irailan, Gatzagakoaz gain, beste emanaldi bat ere egin zuten Aretxabaletan. 20 lagunek osatzen dute taldea, eta askotariko jendea dago. Taldea ezagutarazteko sare sozialak erabiltzen dituzte.



Erakusketa berria!  
**BOLU**  
**SUKALDEAK**

Sukalde eta bainu altzariak - Etxeko elektratresnak  
Horma armairuak - Mahaia eta aulkiak

Bolu 22 BERGARA - Tel/Faxa: 943 76 27 02 [bolusukaldeak@euskalnet.net](mailto:bolusukaldeak@euskalnet.net) / [www.euskalnet.net/bolusukaldeak](http://www.euskalnet.net/bolusukaldeak)



Arruriaga 5 BERGARA • 943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45

**Gabon zoriontsuak, guztioi!**

- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
  - Lokal komertzialak
  - Teilatuak
  - Sukaldeak
  - Bainuak
  - Fatxadak
- Baserri eta jauretxeen erreformetan eta txaleten eraikuntzan espezializatuak
- Gremioen koordinazioa
- Proiektuak





**OÑATI****EUSKAL HERRIKO HISTORIALARIEN II. BILTZARRA**

Irailaren 16an, 17an eta 18an Euskal Herriko Historialarien II. Biltzarra egin zuten Oñatin, Nabaralde antolatuta. 160 lagun izan ziren hitzaldietan, eta antolatzaileen aurreikuspenak gainditu egin zituen biltzarrak. Goi mailako ponentziak izan ziren.

**DEBAGOIENA****INAXIO AZKARRAGA-URIZAR, MANKOMUNITATEKO PRESIDENTE**

Arrasateko alkate Inaxio Azkarraga-Urizar izendatu zuten Mankomunitate presidente irailaren 22an egindako batzarrean. Jesus Elortza Bergarako alkatea izango da lehendakariordea eta Oñatiko zinegotzi Leire Egaña, diruzaina.

**OÑATI****ERASO SEXISTAK ARTATZEKO TELEFONOA JARRI ZUTEN**

Berdintasun batzordeak jaietan gerta zitezkeen eraso sexistak atenditzeko telefonoa jarri zuen herritarren esku. 24 orduz egon zen martxan eta laguntza juridiko eta psikologikoa eman zuten. Gainera, informazio mahaia ere ipini zituzten.

**DEBAGOIENA****Espainiako Itzulia gure errepideetan ibili zen ▲**

Irailaren 10ean pasatu zen Espainiako Itzulia ibarretik. Kanpanzarren, Gorlan eta Deskargan batu ziren jarraitzaile gehienak. Etxekoak eta gainerakoak animatzera irten ziren zaleak, baina baita aldarrikapenak egitera ere: Vuelta zapaltzen ari zen lurra Euskal Herria dela, presoen etxeratzea eskatzera, euskal selekzioen zilegitasuna... Kanpanzarren gora, Markel Irizar pasatu zen tropelaren buruan.

**ARETXABAETA****Txarapea 1eko eta 2ko jabeek elkarretaratzea egin zuten ▲**

Gure etxeak nahi ditugu lelopean elkarretaratzea egin zuten Txarapeako 1. eta 2. blokeetako etxeen jabeek, irailaren 21ean. Oso kezkatuta eta gogaituta zeuden euren etxeetako lanak gelditu zeudela.

Zazpi urteren ostean etxeak bukatu barik daude, lanak gelditu eta, gainera, erantzunik ez dute jasotzen. Egoera salatu eta lanak ahalik eta azkarren bukatzeko eskatu zuten jabeek eta herritarrek.

**OÑATI****Ulmak 50. urteurrena ospatu zuen langileekin ►**

Oñatiko Ulma kooperatibak 50. urteurrena ospatu zuen. Irailaren 8an *Denboraren kapsula* delako baten etorkizuneko bazkideen dako mezu, objektu eta desioak sartu zituzten. 2061. urteko bazkideek zabalduko dute kapsula hori.

Bestalde, Ulmak antolatuta, kontzertua egin zuten Donostiako Orfeoia eta Bilboko Udal Musika Bandak Oñatiko plazan irailaren 9an, *Oroitzapenerako kontzertua* izenarekin.



Santalaitz 6 behe 2 - BERGARA  
Tel: 943 76 17 56 - Faxe: 943 76 05 88  
[mondragon\\_cespa@cespa.es](mailto:mondragon_cespa@cespa.es)

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Bide garbiketak
- Barne garbiketak
- Hiri-zabor solidoen bilketa
- Gaikako zabor-bilketa: kartoia, ontzikiak, e.a...
- Kalegarbiketa
- Zabor bilketa
- Lorezaintza

Gabon zoriontsuak guztioi



ZORIONAK ETA  
URTE BERRI ON!

Arantzazuko ama 19A-1A • OÑATI • Tel. : 652 71 08 37 / 943 71 62 15 • [pinturas\\_urbia@yahoo.es](mailto:pinturas_urbia@yahoo.es)



**ESKORIATZA**  
**MAIXOL IPARRAGIRRERI**  
**EUROAGINDUA ATZERATU ZIOTEN**

Maixel Iparragirre eskoriatzarra epaitu zuten irailaren 13an Bordelan, haren aurkako lau euroaginduren harira. Iparragirre gose greban joan zen epaietara; euroagindua atzeratu egin ziotenez, gose greba bertan behera utzi zuen.

**DEBAGOIENA**  
**KUTXEN BATERATZEEN ALDE,**  
**KUTXAREN BATZAR OROKORRA**

Bildurekin akordioa lortu ondoren, irailaren 23an Kutxak egindako batzar orokorrean babes politiko eta sindikal zabala jaso zuen Kutxa Bank-ek. Vitalen eta BBKren batzar nagusiek baiezkota eman ondoren, Kutxako batzar orokorrak ere alde egin zuen.

**DEBAGOIENA**  
**EAJ-K OSPITALEKO MURRIZKETEN**  
**AURKAKO MOZIOA AURKEZTU ZUEN**

Irailaren 28an Debagoieneko EAJk prentsaurrekoa egin zuen Eskualdeko Ospitaleko proiektuak izan dituen murrizketak salatzen: "Inorekin adostu barik hasierako egitasmoa murriztea erabaki dute", salatu zuen EAJk, eta mozioa aurkeztu zuten.



**BERGARA**  
**ASIER**  
**ALTUNA**  
ZUZENDARIA

Irailaren 17an estreinatu zuen *Bertsolari* dokumentala Kixi bergararrak, Donostiako zinemaldian. Bi urte eta erdi behar izan zituen filma egiteko.



**ARETXABALET**  
**IVAN**  
**VAZ**  
DISEINATZAILEA

Ivan Vaz diseinatzaile aretxabaletarrak Arabako moda asteko bilduma onenaren saria irabazi zuen sortzaile berrien kategorian.



**ARRASATE**  
**Bertso eskolako**  
**sortzaileei, inbutua ◀**

Urtero lege, Maritxu Kajoi Nobe-naixue egin zuten Arrasateko plazan, irailaren 30ean. 18:30ean hasita, gazta eta ardoa banatu zituzten bertaratu zirenen artean, eta 20:00etan, inbutua eman zieten Santi Iparragirre, Juanito Akizu eta Patxi Goikoleari. Arra-zoia, Euskal Herriko lehenengo bertso eskola sortu izana. Duela 37 urte, Almen ikastetxean, eskola-orduz kanpo bertso eskolak ematen hasi ziren hiru omenadunak.



**OÑATI**  
**Oñatin San Migel jaiak**  
**ospatu zituzten ▶**

Irailaren 28an Txantxikuaren jaitsierarekin hasi zituzten San Migelak eta urriaren 3ra arte iraun zuten jaiak, giro bikainean.

Hainbat berritasun izan dituzte jaietan aurtan: Txantxi familiaren eguna, egun morea, gau-paseroen argazkia, Atzeko kaleko agertokia, jaietako zapia... Gainera, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako pegatinak atera zituzten, baita, eraso sexisten aurkako telefonoa ere.



**OÑATI**  
**Errepresioa jasan zutenak**  
**omendu zituzten ▲**

Faxismoaren biktimei hitza emateko, justizia bila, *Gerrako garra* *Oñatin* dokumentala aurkeztu zuten irailaren 25ean. Intxorta 1937 kultura elkarteak koordinatu eta Kepa Aranburuk zuzendu du lana. Santa Ana aretoa bete egin zen omenaldirako. Idoia Etxeberria Gogoratu Guran taldeko kideak esan zuen Oñatin bi aldeetako 121 hildako egon zirela, eta 737 bat herritar zigortu zituztela. Izen bereko liburua ere argitaratu dute, abenduan.



**ATXEGA ARDOAK**  
**BERGARA**

*Gabon zoriontsuak, guztioi!*

Amillaga 25 - Industrialdea - BERGARA  
Biltegia: 943 76 27 76 / 943 76 38 52



Buztinzuri 6 behea ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 62 69



**GABON JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!**





## OÑATI

**ARRIKRUTZ KOBAK ZIKLO-KROS TALDEA AURKEZTU ZUTEN**

Arrikruz Kobak ziklo-kros taldea aurkeztu zuten urriaren 7an. Bost txirindularik osatzen dute taldea: Maider Usandizaga, Xabier Aiastui, Iker Alberdi, Iker Arkauz eta Aitor Umerezek. Ruper Arkauz eta Josu Alberdi dira zuzendariak, eta Jon Arkauz teknikaria.

## ARRASATE

**XARMA TALDEAK 'KARENKA' DISKOA KALERATU ZUEN**

Danbaka musika lehiaketako irabazle Xarma taldeak *Karenka* diskoa kaleratu zuen. 12 abestiz osatutako lana da. Kantu guztiak berriak dira, bi izan ezik, *Libre* –Iaren 2011ko kantu ofiziala– eta *Isiltasun hautsia*, Intxorta 1937 kultura elkarteak eskatutakoa.

## ELGETA

**ESKOLA TXIKIEN ELKARTETIK IRTEN ZEN ELGETAKO ESKOLA**


Eskola Txikien Elkartetik ateratzea erabaki zuen Elgetako Herri Eskolak. "Eskolak 95 ikasle eta zortzi unitate ditu egun. Gure premiak eta Eskola Txikien batzarrak dituenak oso bestelakoak dira", esan zuten guraso elkarteko zuzendaritzakoek.



## OÑATI

**RUPER ORDORIKA**  
MUSIKARIA ETA BAKARLARIA

Musikari oñatiarrak New Yorken grabatutako *Hodeien azpian* lana aurkeztu zuen. Gizakiaren barruko ametsak eta fantasmak batu zituen 11 abestitan.



## BERGARA

**MAREN BELASTEGI**  
UEMA-KO PRESIDENTE

Urriaren 5ean izendatu zuten Maren Belastegi zinegotzi bergararra UEMako presidente. Kargua "ilusioz eta gogotsu" hartzen zuela esan zuen.

## BERGARA

**Aranzadi Ikastolaren 40. urteurrenaren amaiera ▼**

Aranzadi Ikastolak 40. urteurrenaren azken ospakizuna egin zuen urrian. 450 lagun elkartu ziren Bergarako pilotalekuan egindako bazkarian. Gurasoak, irakasleak eta ikasleak elkartu ziren mahaiaren bueltan. Bazkalostean, kantu saioak, gurasoek prestatutako abesbatzen jaialdia eta DJ Julenen emanaldia izan ziren. Egun osoan askotariko ekitaldiak egin zituzten.

Aranzadi Ikastolak 40 urte bete zituen ekainaren 19an.



## ARRASATE

**Kantari karaoke ikuskizunaren beste edizio bat abian ►▲**

Goienak antolatutako Kantari karaoke ikuskizuna hasi zen Arrasateko Amaia antzokian. Guztira, 839 gaztetxok parte hartu zuten Arrasaten, Oñatin, Bergaran eta Aretxabaletan grabatutako saioetan. Amaia Txintxurreta oñatiarrak egin zituen aurkezle lanak.



## ARRASATE

**Goienagusi elkarteak aurkeztu zuten ▼**

Arrasateko Etxaluzen aurkeztu zuten Goienagusi elkarteak. Esperimentzia Eskolari jarraipena emateko asmoz sortu zen eta Debagoieneko 50 urtetik gorako ikasleak dira protagonista. Elkartek dituen batzordeak –euskara, informatika, irteerak eta musika– eta etorkizunerako erronkak azaldu zituzten.

62 bazkidek osatzen dute elkarteak eta horietatik 48 dira eskolak ematera eta hitzaldietara joaten direnak.



**ARAMAIOKO UDALA**  
**ARABA**

**“Aramaioko Udalak  
urte berri ona opa dizue  
aramaiotar guztioi,  
eta bereziki etxetik kanpo  
zaudetenoi”**



Argazkia: Ainhua Perez



Bixente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16  
E-posta: [udala@aramaio.org](mailto:udala@aramaio.org)







**ARRASATE**  
**ROSI 'KATANGA' ETA ROMAN LOPEZ OMENDU ZITUEN MONDRAK**  
Mondrako nesken futbol taldearen 25. urteurrenean, taldearen sortzaile izan ziren Rosi Otadui *Katanga* eta Roman Lopez omendu zituzten urriaren 2an. "Hunkituta eta pozik" jaso zuten omenaldia. Ohorezko sakea egin zuten.

**OÑATI**  
**GUARDIA ZIBILA JOATEA ESKATU ZUTEN HAINBAT HERRITARREK**  
Fan Hemendik batzordeko kideek prentsaurrekoa egin zuten Guardia Zibila "Oñatitik joatea exijitzeko". Bestalde, salatu zuten Guardia Zibilak udan izandako jarrera: "Intimidatu eta probokatu egin gaituzte. Araotzen, Arantzazun... kontrolak ipini dituzte".

**ARAMAIO**  
**LIERNI ALTUNA IZENDATU ZUTEN ZUIAKO KOADRILAKO PRESIDENTE**  
Lierni Altuna izendatu zuten Zuiako Koadrilako presidente. Aramaio beste bi ordezkari ditu eskualde batzarrean: Ramon Ajuria alkatea eta Edurne Uribarren zinegotzia. Zuiako koadrila Debagoieneko Mankomunitatearen pareko erakundea da.

**EUSKAL HERRIA**  
**ETAk jarduera armatua bukatzea erabaki zuen ◀◀**

ETAk jarduera armatua behin betiko bukatzen zuela iragarri zuen urriaren 20an. Komunikatua kaleratu zuen. Espainiako eta Frantziako gobernuei gaztakaren konponbiderako "elkarrizketa prozesu zuzena" zabaltzeko dei egiten zien. Gainera, euskal gizarteari beste dei bat egin zion: "Konponbide prozesuan murgiltzeko" deia, hain zuzen. Komunikatua hedabide guztietako azal izan zen biharamunean.



**ELGETA**  
**Gudarien omenezko ekitaldia Intxortan ▼◀**

Intxortako fronteko gudari eta milizianoei omenaldia egin zieten Elgetan. Jendetza batu zen omenaldian. "Hunkigarria" izan zen ekitaldia, baina une politena herritarrek egindako lore eskaintza izan zen: krabelin gorri bana ipini zuten, gerran hildako miliziano eta gudarien omenez. Herritarrez gain, ekitaldian parte hartu zuten Elgetako Udaleko alderdi guztietako ordezkariak eta Intxorta 1937 kultura elkarteko kideek.

**DEBAGOIENA**  
**Parte-hartze prozesuak abiarazi zituzten ▶**

Parte-hartze prozesuak abiarazi zituzten bailarako hainbat herritan: Oñatin, Bergaran eta Eskoriatzan. Oñatin *Aurrekontuak Herrijorran* egitasmoa ipini zuten abian, 2012-ko aurrekontuetan herritarren iritziak kontuan izateko, eta, ondoko argazkian ikusten den moduan, Eskoriatzan, *Denok denona entzuteko* egitasmoa. Udal guztietan gaikako hainbat batzar egin zituzten: gizarte ongizatea, kultura, ingurumena, komunikazioa, kirola...



**ILE**

**ILE APAINDEGIA**

**Gabon jai zoriontsuak**

Andra Mari plaza 2  
Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

**GOIKOETXE HARATEGIA**

**ZORIONAK eta urte berri on !**

Salbador kalea 1 ELGETA  
Tel.: 943 78 82 06



**ARETXABALETA****BI EMAKUME ZAURITUTA  
HAIZETEAREN ONDORIOZ**

Urriaren 26an izandako haizete indartsuak hainbat ondorio izan zituen gurean. Larriena Aretxabaletan gertatu zen: herriko plazako etxeetako baten, sabai-leihoak airean eroan zuen haizeteak eta plazan zeuden bi emakume zauritu zituen.

**OÑATI****Nazioarteko trikiti  
doinuak Oñatin ►▼**

Euskal Herriko trikiti elkarteak eta Oñatiko Lizargarate trikitezale elkarteak antolatuta, nazioarteko X. jaialdia ospatu zen Oñatin. Punta-puntako trikitalariak egon ziren: Lizarribar, Osinaga, Loidi, Doherty eta Ostolatza, besteak beste. Baina jaialdiko protagonista nagusia biolina izan zen. Trikitia eta biolina batu zituzten. Cyrille Brottok, Alexandra Lacouchiek, Jorge Arribasek eta Juan Arriolak jo zuten biolina nazioarteko jaialdian.

**OÑATI, ARRASATE****YERAI VARELA ETA NERE ARREGI  
NAGUSI ARRASATETIK OÑATIRA**

Arrasate-Oñati lasterketaren 28. edizioa egin zuten urriaren 8an, eta, 381 parte-hartzaileen artean, Yerei Varela oñatiarra eta Nere Arregi arrasatearra izan ziren azkarrenak. Lehen aldiz patinatzaileek parte hartu zuten proban: 98k, guztira.

**%92****HONDAKIN**

Hori da Antzuolan atez atekoa jarri zutenetik birziklatutakoa. Hurrengo atez atekoak Bergaran eta Oñatin ipiniko dituztela esan zuten Mankomunitateko ordezkariak.

**ARRASATE****Telebistak su hartuta, sute ikusgarria sortu zen ▲**

Urriaren 26an su hartu zuen Arrasateko Zarugalde kaleko 8. zenbakiko laugarren solairuak. Etxe barruan zeuden 70 urte inguruko Maria Julia Zabala eta Jose Miel Agirrebeña. Euren esanetan, telebista ikusten ari zirela "kea sumatu zuten lehenengo, eta gero, su garra". Su garrek etxebizitzako terraza hartu zuten eta etxea erabat kiskalita geratu zen. Suhiltzaileek ordu erdian itzali zuten sutea.

**Gabon zoriontsuak!****Gogor  
estutzen dugu!**

**Torlojugintza**  
**Espezialitatea: era guztietako azkoinak**

**INDUSTRIAS**



## DEBAGOIENA

**AMAIUR KOALIZIOA NAGUSITU ZEN, BAITA IBARREAN ERE**

Espainiako Gordeetarako hauteskundeetan Amaiurrek botoen ia erdia eskuratu zituen gurean (%47). Ibarreko bi lagunek lortu zuten ordezkaritza Espainiako gorteetan: Maite Aristegik (Amaieur) Kongresuan eta Lore Leanizbarrutiak (EAJ) Senatuan.

## ARRASATE

**GAUA NON PASA EZ DUTENENDAKO ATERPETXEA ZABALIK**

Egokitzen lanak egin ostean, neguko aterpetxea azaroaren 4an ireki zuen Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Martxoaren 31ra arte egongo da zabalik, egunero, 19:00etatik 09:00etara. Hotz handia egiten duen egunetan egun osoz zabalduko dute.

## OÑATI

**BILDUKOEK JASOTAKO MEHATXUEN KONTRA**

Oñatiko Bildu koalizioko zinegotziek urrian zehar udal webgunean jaso zituzten mehatxuak eta Josu Lizarralde hautetsiak etxeko buzoian jasotako mehatxu-gutuna salatzen elkarretaratzea egin zuten plazan.



## LEINTZ GATZAGA

**Sagardoaren prozesua, San Milixanetan ►**

Gatzagan egin zituzten hemeretzigarren San Milixan jaiak, eta sagardoa egiteko prozesua erakutsi zuten pilotaleku parean.

Horrekin batera, Gasteiz, Durango, Errenteria, Zumaia, Aduna, Bidania, Anoeta eta Lazkaoako artisauak izan ziren, produktuak saltzen. Krisiaren eta azokak hainbeste ugartu izanaren ondorioz saltzaileek ez dute lehen beste irabazten, baina Gatzagako feriak aurrera segitzen du.



## ARAMAIO

**Omenaldi ederra ahozko ondarea gorde dutenei ►**

Aramaioko zinema aretoa herri-tarrez bete zen Aramaioko ahozko ondarea gorde dutenak omentzeko. Ondare hori jasotzeko etxeko bilketa egin zuten Divina Arriolabengoak eta Arantza Ozaetak: herriko aspaldiko ipuinak, kondairak eta bizipenak jaso zituzten, eta kontalariendako izan zen omenaldia. Herriko dantzarien eskutik, aurrekua, Xabi Igoaren bi bertso eta DVD eta lore bana jaso zuten omenduek; luncha egin zuten gero.



## DEBAGOIENA

**Bikain ziurtagiria euskara planak sustatzearen ►**

Jaurilaritzak Bikain ziurtagiria eman zien Arrasateko Udalarari, Elai Taldeari eta Copreciri, euskara planak sustatzeagatik. Arrasatekoa izan da bailaran halako sari bat jasotzen duen lehen udala, eta urrezko ziurtagiria eman zioten. Antzuolako Elai Taldeak, berriz, bigarren jaso zuen urrezko ziurtagiria, 2008an ere sari hori jaso zuten-eta. Eta Aretxabaletako Copreci kooperatibari zilarrezko ziurtagiria eman zioten.

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.  
Zorionak eta urte berri on!*

## ◀ HIZKUNTZA KUDEAKETA ERAGINKORRA LORTZEKO BIDERIK ZUZENENA

- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA eta EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZEBITZUA

**Urte berri on!**

**EMUN**  
LANA EUSKALDUNTZEKO  
KOOPERATIBA

[www.emun.com](http://www.emun.com)  
[www.lantalana.com](http://www.lantalana.com)





**ARRASATE****'GERRAKO IPUINAK' LANA AURKEZTU ZUTEN KULTURATEN**

Sunti Amilibia donostiarrak idatzitako *Gerrako ipuinak* liburu eta CDari Arrasateko bost taldek jarri zioten musika: Gose; Anger; Andoni, Petti eta Eñaut Zubizarreta; Xarma eta Bide Ertzeanek. Ibarreko beste lagun batzuek ere kolaboratu zuten.

**ELGETA****175.000 EURO DOMINGO ITURBE ERAIKINA EROSTEKO**

Elgetako Udalak 175.000 euro ordaindu beharko dizkio Domingo Iturbe Fundazioari eraikina eta lurak erosteko. Hitzarmen hori egin zuten azaroan. Hala, Udalak 24 urte izango ditu adostutakoa ordaintzeko, 6.000 euro urtean, 2013an hasita.

**OÑATI****BATZOKIKO FATXADAN PINTADAK EGIN ZITUZTEN, GAUEAN**

Kolore gorriarekin eta horiarekin eta hainbat berbarekin margotu zuten fatxada. Era berean, hormaren parean aparkatuta zeuden hiru auto ere kaltetu zituzten pinturarekin. EAJk "gogor" salatu zuen ezezagunek egindako ekimen hori.

**DEBAGOIENA****IBARREKO 515 LAGUN BEHOBIA-DONOSTIAKO HELMUGAN**

Aurtengo Behobia-Donostia lasterketa aspaldiko gogorrera izan da, beroaren eraginez deshidratazio ugari egon ziren-eta. Hala ere, Debagoieneko 515 lagunek lortu zuten lasterketa amaitzea, baina bestetan baino larriago ibilita.

**BERGARA****Jakiunde akademiak osoko bilkura egin zuen ▲**

Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren akademiak Bergaran egin zuen osoko bilkura, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Han izan ziren Jakiunde osatzen duten jakintsuak, baita Martin Garitano ahaldun nagusia eta Jesus Elortza alkatea ere, besteak beste. Pedro Miguel Etxenike Jakiundeko lehendakariak eman zion bilkurari hasiera eta adierazi zuen instituzio horrek urrats garrantzitsuak egin dituela Bergaran egoitza ezarrita, Oloso dorrean.

**ARRASATE****"Aldaketa fiskal sakonak proposatzen ditugu" ►**

2012ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuek "politika berri bat eta politika egiteko modu berri bat" erakutsiko dutela esan zuen Martin Garitano ahaldun nagusiak Arrasaten. Garitanorekin batera Idoia Arantzabal Biluko batzarkidea, Gizarte Politikako diputatu Ander Rodriguez, Larraitx Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatua eta Arantza Ruiz de Larriaga Herriarren Partaidetzarako zuzendaria izan ziren.

**BERGARA****'Udazkena oinetan' ikuskizuna ▲**

Ikuskizun berezia egin zuten Osintxuko Musikara dantza taldekoek, Arizondo argazkizale elkarteok eta Uxue Agirre olerkariak. Izan ere, hiru genero batu zituzten -dantza, argazkilaritza eta olerkia- udazkenari omenaldia egiteko. Arrakasta handia izan zuen ikuskizunak, Bergarako pilotalekua bete egin zelako herriko artistak ikusteko. Zelan ez, Benito Lertxundiren *Udazken koloretan* abestiaz hasi zuten ekitaldia.


[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

943 71 48 45

**ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA****ONDO PASA  
GABON JAIK!****Intxaurtxueta 16, behea ESKORIATZA**



DEBAGOIENA

IKA-MIKAK ZABORRAREN KUDEAKETAREN HARIRA

PSE-EE eta Arrasate eta Oñatiko Zero Zabor taldea ika-mikatan murgildu ziren zaborren kudeaketaren harira. Sozialistak atez ateko sistemaren kontra azaldu ziren; Zero Zabor taldekoek, berriz, sozialisten "gezurrak" salatu zituzten.

ESKORIATZA

IÑIGO IRUIN ETA RUFÍ ETXEBERRIA HUHEZIN

Iñigo Iruin abokatua eta Rufi Etxeberria Sortuko buruzagia Huhezin izan ziren, *Gizarte aldaketak* ikasgaian esku hartzen. Azaldu zuten, besteak beste, zelan bizi izan zituzten nazioarteko konferentzia eta ETaren behin betiko etena.

99

LITRO

Azaroaren 4ko, 5eko eta 6ko asteburuan etengabe egin zuen euria. Arantzazun hiru egun horietan metro koadroko 99 litro ur batu zituzten.



ARRASATE

TXEMA GISASOLA MONDRAGON KORPORAZIOA

Txema Gisasolak, Fagor Etxetresnak Taldeko egungo zuzendariak, hartuko du Jose Maria Aldekoaren lekua Mondragon Korporazioko presidente gisa.

25

ORDENAGAILU

Antzuolako eskolan 25 ordenagailu lapurtu zituzten. Lapurrek, eskolan ez ezik, Mujika harategian ere egin zuten lapurretan.

BERGARA

Ibarreko sei gazte inputatuta ▶

Debagoieneko sei lagunek –Bergarako bost eta Arrasateko bat– Madrilgo Auzitegi Nacionalean inputatu gisa deklaratzeko zitazioa jaso zuten. Azken Korrikan preso-en argazkiekin korrika egitearren eta terrorismoa goraipatzearren bi urteko kartzela zigorra jaso zuten. Horren berri emateko prentsurrekoa egin zuten Bergaran, baita gazte horiei elkartasuna erakusteko hainbat ekitaldi ere.



ARRASATE

'La revoltosa' zarzuela, arrakastatsuen ▶

Orain arte egin dituzten zarzuela guztien artean *La revoltosa* izan da arrakastatsuen. Izan ere, aurtengo edizioan, zarzuela generoa ezagutzen ez dutenak ere txundituta geratu dira Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideek egindako lanarekin.

Amaia antzokia lepo bete zen, baina hori ez da nobedadea. Saioen amaieran aktoreek azpimarratu zuten oso gustura egon zirela, batez ere ikusleen erantzuna zein izan zen ikusita.



ARRASATE

Nafarroako Opena, TRT Racing taldearendako ▲

Nafarroako Openeko lasterketa guztietan parte hartu ostean –eta guztietan lan txukuna eginda–, Garagartzako Orobengoa anaiek gidatzen duten TRT Racing taldeak eskuratu zuen Nafarroako Opena. Azkenaurreko lasterketan matematikak erakusten zuten torneo ia-ia poltsikoan zeukatela, eta bestetan baino arrisku txikiagoa hartuta lortu zituzten beharrekoak zituzten puntuak. Denboraldi berriari begira iraupeneko probak dituzte buruan.



**HOBETUZ 2011-2012 etengabeko prestakuntza %100 diruz lagunduta**

**AKADEMIA BASIDA**

- IPHONE IKASTARO AZKARRA
- INFORMATIKA
- MEKANOGRAFIA
- ADMINISTRAZIOA
- INGENIARITZA
- DISEINUA
- LAGUNTZA KLASEAK

*Zorionak eta Urte berri on!*

Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33 • Faxe: 943 79 06 28 • [formakuntzamariasun@bastida.es](mailto:formakuntzamariasun@bastida.es)



**RICHI**

ile apaindegia

- Era guztietako peluken garbiketa, zainketa eta salmenta
- Peluken zerbitzua etxeetan eta ospitaletan ematen da
- Automakillaje ikastaroak
- Couleur Caramel etxeko edertasun-produktu naturalen salmenta
- Laser bidezko depilazioa

*Urte berri on!*

Zarugalde 5 ARRASATE Te.: 943 79 10 06



## ARRASATE

## AKORDEOI LEHIAKETETAN IBILI ZIREN 275 JOTZAILE

Iosif Purits errusiarrak irabazi zuen XIX. Arrasateko Nazioarteko Akordeoi txapelketako Arrasate Hiria saria. Hilaren 5ean eta 6an jokatu zen aurten. Orain arteko parte-hartze handiena izan zuen edizioak: txapelketa guztietan, 275 akordeoi-jotzaile.

## ARETXABALETA

## LANBIDE ESKOLAKOEN AUTOA, BIGARRENA RALLYAN

Lanbide Eskolako ikasle-langileek egindako autoa bigarren geratu zen Cofrentesen, Valentzian egindako rallyan. 2011ko Espainiako rally txapeldun Miguel Fusterrek gidatu zuen, eta David Cue izan zuen kopilotu. Txus Jaioek estreinatu zuen autoa.

%3,1

## MONDRAGONEK SORTUA

Euskadiko Barne Produktu Gordinaren %3,1 Mondragon Korporazioak sortu du aurten, eta industria arloan, %7,4, Eustat erakundearen arabera.

## OÑATI

## BI LIBURU MUSIKATU AURKEZTU ZITUEN GANBARA TXIKIK

*Jostailugilea* eta *Eskolopendra* liburu musikatuak egin dituzte Ganbara txikiko kideek. Musikalak dira Ganbararen zigilu: "Orain arte musikalak taula gainean antzeztu ditugu, baina orain liburura ekarri nahi izan dugu egindako lana", esan zuen Aitor Biain zuzendariak.

## BERGARA

## BELCEBLUES-EK DISKO BERRIA ARGITARATU ZUEN

Belceblues taldeak bigarren lana, *Diabulus in musica*, argitaratu zuen. Hainbat kolaborazio izan zituzten: Aitor Gorosabel, gitarra eta ahotsarekin; Jon Gurrutxaga, ahotsarekin; Israel Santamaria, teklatuarekin; eta, Enrike Txurruka bergarra, pianoarekin.



## DEBAGOIENA

## Ibar osoan ospatu zuten Euskararen Eguna ◀

Debagoienak euskaraz bizi nahi duela erakutsi zuen abenduko lehen astean, Euskararen Egunaren bueltan. Arrasaten grabaketa erraldoia egin zuten, euskalgintzak antolatuta; Bergaran, hitz gurutzatuen lehiaketa izan zen; Aretxabaletan, amodiozko SMS bidezko mezuen lehiaketa-aren sariak banatu zituzten... Horiez gain, pintxo-jana, pailazoak, ipuin-kontaketak, ikastetxeen ekitaldiak... denetarik egon zen aste horretan.



## ANTZUOLA

## Profesional moduan, lehen txapela Mendizabalek ▲

Profesional gisa hasi eta bost hilabetera, lehenengo txapelketa irabazi zuen Aitor Mendizabalek: Lau t'erdiko Promozioko txapela jantzi zuen, hain zuzen ere. Tolosako Beotibarren, 15-22 irabazi zion Stephane Lemunori.

## ARETXABALETA

## Herriaren eta euskararen gaineko lehiaketa ►

Loramendi Elkarteko Sustapen Taldeak (argazkian) Aretxabale-taren inguruan gehiago jakiteko eta kultura zabaltzeko. GOIENA-ren bitartez –bere astekarian eta Goiena.net atarian– egingo dituzte galderok bi astean behin –pape-rean eta sarean–, eta ekaina arte iraungo du. Ekainean, erantzun zuzen gehien eman dituen parte-hartzaileak saria jasoko du, eta parte hartu duten guztien artean zozketa egingo dute eta beste sari bat eman.



Komenio, 2 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 76 00 01 • Fax: 943 76 22 41  
E-mail: [imprespal@euskalnet.net](mailto:imprespal@euskalnet.net)

# IMPRESPAL

## INPRIMATEGIA

● Offset

● Impresio Digitala

● Koloretako fotokopiak

# IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.    MARGO LANAK OROKORREAN

Zorionak  
eta Urte  
berri on!

Era guztietako lanak • Moketa eta sintasola • Iztuku esponjatua • Paper pintatuak • Harea zorrotada • Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara • Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16 Faxa: 943 76 09 32



**BERGARA****HERRIKO TOPONIMIA MAPA ETA WEBGUNEA EGIN ZITUEN UDALAK**

Bergarako toponimia mapa eta webgunea herritarren eskura ipini zituen Udalak. Mila leku-izen baino gehiago batu zituen Udalak, eta 6.000 ale banatuko zituela esan zuen aurkezpenean. Toponimia webgunea hau da: [www.bergarakoeuskara.net](http://www.bergarakoeuskara.net).

**DEBAGOIENA****Lehen zikloturista taldeak, 35 urte ▼**

Arrasateko Zikloturista Taldea orain 35 urte sortu zela ospatu zuten hainbat lagunek euren egoitzan. Debagoiengan sortu zen lehen zikloturista taldea izan zen eta bailara osoko jendea zen bazkide. Gaur egun, Debagoiena Txirrindularitza Kluba da haren oinordekoa, eta 66 bazkide ditu. Zale-tasunari eustea eta hura sustatzea dute helburu. Oroitzapenak onak dira, 90eko hamarkadan auto batek harrapatuta hil zen Joxe Mari Saizen heriotza salbu.

**DEBAGOIENA****Gabonetan, inoiz baino apaingarri gutxiago ▲**

Inoiz baino argi gutxiago ipini zituzten udalek. Oñatiko plazan ez zuten pinurik ipini, eta horren ordez birziklatutako gauzekin egin-dako apaingarriak ipini zituzten (argazkietan). Bestalde, Arrasateko merkatariek gaizki hartu zuten Udalak kalean argirik ez ipintzea.

**ARRASATE, OÑATI****Hilabete oparoa: hiru liburu aurkeztu zituzten ▲**

Hiru liburu aurkeztu zituzten: argazkietan, goitik behera, *Gerrako garrak Oñatin*, 36ko gerran gertatu zenaz; *Pedro de Viteri Arana*, Arrasateko filantropoaren biografia; eta *Ulma* taldearen 50 urteen historia jasotzen duena.



**Hemen**  
ascensores • igogailuak  
debagoiena

943 04 40 01 / 691 52 22 04

[debagoiena@ascensoreshemen.com](mailto:debagoiena@ascensoreshemen.com)

[www.ascensoreshemen.com](http://www.ascensoreshemen.com)

**INFORMA ZAITEZ**

Debagoiengan igogailuen mantentze-lanak

Gurekin 24 ordu, asteburuak barne

Mantentze-lanak:

**80 € basikoa**

**115 € arrisku orotakoa**



**GABON**  
**ZORIONTSUAK,**  
**GUZTIOI!**



**DEBAGOIENA****PRESOEN ALDEKO EKINTZA ASTEA EGIN ZUTEN**

Presoen eskubideen alde urtarilaren 7an Bilbon egingo den agerraldiaren bueltan, aste oso baten hainbat ekintza izan ziren: Bilduko hautetsien baraualdia, kale bilkurak, elkarretaratzeak, bertso saioak eta beste batzuk.

**ESKORIATZA IRANTZU DEL PORTILLO IKASLEA**

HUHEZIKo Psikopedagogia ikasle Irantzu del Portillo Lopezek irabazi zuen MUko ikasleen gradu amaierako proiektu onenaren saria. 17 lan aurkeztu ziren.

**BERGARA****TAVEX ENPRESAKO 27 AURRE-ERRETIRATU, LARRI**

Tavex enpresan aurre-erretiroa hartu zuten 27 langilek euren egoera salatu zuten, benetan larria zela esanez. Apra-Leven aseguru-etxearekin hitzartuta zeuzkaten primak urte osoan kobratu gabe zeudela esan zuten, hark hondoa jo eta gero.

**ARRASATE JOSE ANTONIO ARDANTZA LEHENDAKARIA**

**"Oso garai zailak izan ziren guretako Arrasateko alkate izan nintzenekoak"**

**ARRASATE, ARETXABALETAK****NUBI ETA IESBAA ELKARTEAK BERTAN BEHERA GERATU ZIREN**

Sahararekiko bi elkartasun taldek, Arrasateko Nubik eta Aretxabaletako Iesbaak, jarduera eten egin zutela esan zuten, jenderik ez zegoelako. Hala ere, arduradunek norbanako gisa Sahararen alde lanean jarraituko zutela esan zuten.

**BERGARA****Lantegia inauguratu zuen Gureak taldeak ▲**

Gureak taldeak 2.000 metro koadroko lantegia inauguratu zuen. 3,8 milioiko inbertsioa egin zuen, eta kablea prozesatzeko dute han. 34 langile enplegatzen ditu zuzenean. Ekitaldian, beste agintari batzuen artean, Bergarako bi alkate ohi izan ziren: Elkorro eta Gallastegi.

**DEBAGOIENA****Bailarako sortzaileak, gustura Durangoko Azokan ◀▲**

Debagoiendar sortzaileak gustura ibili ziren 46. Durangoko Azokan. Debut asko egon ziren: Intxorta 1937 elkarteak, Ain\_1 taldea, Kepa Errasti aktorea... Aurtengo azokak inoiz baino formatu gehiago batu zituen, gune berriekin: Irudienea, Szentokia eta Kabia.

# Zure diseinua gauzatzen dugu.

Serie laburrak

Prototipoak

Kontrol tresnak



Serie laburren fabrikazioa erronka handia da enpresa askorentzat. Ekide, ordea, espezialista da serie laburretan.

Gure elkar-ingeniaritza zerbitzuak, bezeroen lantaldeekin batera lan eginda, prozesuak eta materialak optimizatzea posible egiten du emaitzarik hoberenak eskainiz.

12 teknologiatik gora integratzen dugu eta prototipoak eta kontrolerako tresnak ere fabrikatzen ditugu. Honela, sektore ugarietako enpresen beharrei erantzuten diegu.

**Gabon zoriontsuak**



**Urte berri on!**

EKIDE S.L. - Tellería kalea F2

20500 Arrasate

Tel. 943 71 25 43

[www.ekide.es](http://www.ekide.es)





## Saunier Duval

GUIPUZCOA  
**Sematec**

LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU  
OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorentzo 21  
20570 Bergara

**Tel.: 943 76 06 61**

[www.sematecguip.com](http://www.sematecguip.com)  
[bergara@sematecguip.com](mailto:bergara@sematecguip.com)

# BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

Bergaran giro ezin hobe!

*Urte berri on bergarar guztioi!*



**Agirrebeña • Ariznoa • Azpeitxi • Bule • Etxagi  
Euxebio II • Iraho • Irish Pub Galways • Kai  
Kayak • Sirimiri • Toki Ona • Usoa • Zunbeltz**



# Bakerako bidea gehienon ahotan

Hainbat debagoiendarri eskatu diogu bukatzera doan 2011ren balorazioa egiteko, gertaera onak eta txarrak nabarmenduz. ETaren amaiera eta ekonomia krisia, gehienon ahotan.



**JON ZUBIAGA**

Musikaria  
Arrasate



**BARCINARI 'TARTAZOA'**

"Horixe urteko onena, herritar batzuk oraindik gauza dira politikari batzuen harrotasuna apaltzeko, modu graziosoa erabilita, gainera".



**ESKATU DITUZTEN ZIGORRAK**

"Ildo beretik jarraituta, gaur egun zigor handiagoa jaso dezakegu politikari bati tarta bat botata pertsona bat hilda baino".



**MIKEL GONZALEZ**

futbol jokalaria  
Arrasate



**AUKERA GUZTIAK LIBRE**

"Azken hauteskundeetan, aspaldiko urteetan ez moduan, botoa emateko orduan herritarrek aukera guztiak izan ditu eskura".



**EGUNGO EZEGONKORTASUNA**

"Azken urteotan bizi izaten ari garen ezegonkortasuna azpimarrituko nuke, zentzu zabalenean. Argitasun falta dago denean".



**KEPA ERRASTI**

Aktorea eta zuzendaria  
Aretxabaleta



**ITXAROPEN GARAI BERRIA**

"Euskal Herrian sortu den egoera sozio politiko itxaropentsua. Gatazkari irtenbidea emateko ateak zabalik daudela ematen du".



**BATZUEN JARRERA**

"Egoera berri horren aurrean batzuek duten jarrera. Gatazkari konponbidea emateko erakusten duten jarrera ezkorra".



**MAIALEN DELGADO**

Igeriketa monitorea  
Bergara



**'CONQUIS' SAIOA ETA ILOBA**

"Urteko onena, pertsonalki, nire iloba txikia da, lñaki. Gainera, *Conquistador* saioan egin ditudan lagunak ere onak izan dira".



**GERTUKOAK EZ EGOTEA**

"Gertuko jendea, joan direnak, ondoan ez egotea bizi izan ditudan une onenetan. Gauza onak haiekin ez banatzea izan da txarrena".



**IDOIA ETXEBERRIA**

Kazetaria  
Oñati



**ALDAKETA POLITIKAGINTZAN**

"Euskal politikagintzan gertatu den aldaketa. Euskal alderdiak batuta ikustea pozgarria da. Ilusioa piztu da, aspaldiko partez".



**MURRIZKETAK**

"Krisi ekonomikoaren aitzakian egin dituzten murrizketak. Erru txikien eta diru gutxien dutenek sufritzen dute gehien".



**MAIALEN MADARIAGA**

Ikaslea  
Bergara



**HERRI EKIMENAK**

"Bailaran izan ditugun herri ekimenen aberastasuna, auzoetako jaien berreskurapenetik hasita, gartetxeetako agenda beteetara".



**MURRIZKETAK**

"Murrizketak edo murrizketen aitzakiaren ondorioz aurrera eraman ahal ezin izan diren proiektu kultural interesgarri guztiak".



*Urte Berri On!*

**DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,  
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...**

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A  
Gipuzkoa Etorbidea, 32  
20500 ARRASATE







**GOIO ARANA**  
MUko irakaslea  
Arrasate

↑ **ETA-REN AMAIERA**  
"Uste dut ez naizela oso originala izango baina ETaren amaiera izan da urteko albiste pozgarrienetakoa".

↓ **FUKUSHIMAREN ONDORIOAK**  
"Fukushimako zentral nuklearraren istripuak eragindako kalteak. Oraindik ere ondorio txarrak eta buruhauste ugari ekarriko ditu".



**IÑAKI ARREGI**  
Artista  
Arrasate

↑ **NORBANAKOEN JARRERA ONA**  
"Nahiz eta krisi egoeran egon, jendeak duen jarrera baikorrak harritu egin nau. Aurrera egiteko ahaleginak ez dira falta; hori ona da".

↓ **KRISI EKONOMIKOA**  
"Bizi dugun egoera oso gogorra da, eta, kasu batzuetan, arazoak direla-eta, norbanakoen duintasuna ere ukitzen da; triste da".



**AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN**  
Dietista  
Oñati

↑ **BAKE PROZESUAN, AUKERA**  
"Euskal Herriko bake prozesu honetan eman diguten aukera da urteko onena; ea posible den guztiak esertzea hau konpontzeko".

↓ **FAMILIA ASKOREN EGOERA**  
"Egun bizi dugun krisi ekonomikoaren ondorioz familia askok duten egoerak pena handia ematen dit".



**MARIA ELENA MONDRAGON**  
Arrasateko Lanbideko langilea  
Bergara

↑ **EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA**  
"20 urteren ondoren enplegu politiken transferentzia egin izana ona da. Erabakiak Madrilén edo Gasteizen hartzea... alde ederra dago".

↓ **LANBIDEK ERAGIN DUEN LANA**  
"Oso gogorra ari da izaten lehengo sistematik Lanbideren berri- ra moldatzeko prozesua. Inoiz baino lanpetuago gaude".



**JAVIER MARCOS**  
Kazetaria  
Aretxabaleta

↑ **BAKEAREN ALDEKO URRATSAK**  
"Urrats nabarmenak egin dira bakerako bidean. Bestalde, krisi sasoiari proiektu berritzaileak daude: Orona Ideo, Mondragon Healths...".

↓ **LANGABEZIA**  
"Ekonomiaren bilakaera eta langabezia tasa; ia 145.000 mila pertsona daude lanerako prest, baina aukerarik gabe".



**IZARO APERRIBAI**  
'Elvis Caino' disko jartzailea  
Bergara

↑ **ETA-REN AMAIERA**  
"Euskal Herriarentzat aro berri bat zabaldu da eta ea hemendik aurrerakoa behar den moduan joaten den, inor ahaztu barik".

↓ **KRISIA**  
"Krisia luze doa eta egoera hobera egingo zuela zioten iragarpenek huts egin dute. Tunelaren amaiera ez da antzematen".



**AITOR PEROSTERENA**  
Zinema zuzendaria  
Oñati

↑ **EUSKAL HERRIAREN ALDAKETA**  
"ETaren su-etena dela eta, Euskal Herriak aldaketa handia izan du, eta hori nahi eta behar dugu euskaldunok".


↓ **AGINTARIEN USTELKERIAK**  
"Herritarrok gerrikoa estutzen gabilta, baina politikari eta bestelako agintariak ustelkeria eta zikin-keria artean dabilta".



**JON MOLINA**  
Abadea  
Bergara

↑ **MUNDUKO GAZTEEN TOPAKETA**  
"Abade naizen aldetik, horixe goraipatuko nuke. Madrilén bi milioi gazte inguru batzeak dena galduta ez dagoela erakusten du".

↓ **KRISIAREN ONDORIOAK**  
"Krisiak agerian utzi du ez dakigula noren esku, zein interesen menpe gauden. Politikariek ez dute erakutsi krisia bideratzeko ahalmenik".



**IKER NARVAEZ**  
Musikaria (Lord Witch)  
Bergara

↑ **EGOERA PERTSONALA**  
"Lana, bikotekidea, familia, lagunak... pertsonalki bizitza betea daukat eta horri eustea lortu dut aurtén, ez da gutxi".


↓ **MUSIKAN ZAIL**  
"Egoera zaila musikan ere nabari da eta sekulako ahalegina egin behar da. Ikusleek segitzen dute sari bakarra izaten".



**JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA**  
Euskara teknikaria  
Arrasate

↑ **NORMALIZAZIORAKO URRATSA**  
"ETAk betiko su-etena iragarri du eta horrek epe ertainera oraingo egoera politikoa aldatzeko aukera emango digu; berri pozgarria da".

↓ **KRISI EKONOMIKOA**  
"2007an sortu bazen ere, aurtén indartu da krisia; Gobernuak zigortu beharrean, langileei eta pentsiodunei ordainarazi nahi zaie".



*Zorionak eta Urte berri on!*




lbararai 43 · 20570 Bergara · 943 76 22 48  
[www.jeanlouisdavid.com](http://www.jeanlouisdavid.com)  
Astelehenetik Ostegunera: 09:30 > 12:00 / 15:30 > 18:30  
Ostirala: 09:30 > 18:30  
Larunbata: 08:30 > 12:30



**DIEGO MARTIARTU**Idazlea  
Arrasate

**HAINBAT GAUZA**  
"ETAren pausoak, gertuko sortzaileen lanak (Arteagaren liburua, Governoren lana, Barberenaren disko-liburua...), abenduko ondoak..."

**MUNDUAREN ANTOLAKETA**  
"Mundua gaizki antolatuta ikustea. Floridako agintari baten nanoak paretaren kontra jaurtitzeko eskubidea berreskuratu nahi izatea triste da".

**IMANOL BELOKI**Goienako teknikaria  
Arrasate

**'TITAU' RALLYA**  
"Eingeinke ekimenak film labur rallya egin zuen Eskoriatzan. Gazteen ekintzak zabalteko ezinbestekoak dira halako ekimenak".

**KUKUTZA GAZTETXEA IXTEA**  
"Kukutza hustu zuten eguneko irudiak oso gogorrak dira, eta hori lortzeko erabilitako metodoak ez ziren aproposenak izan".

**MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR**Irakaslea  
Bergara

**BAKE SASOI ITXAROPENTSUA**  
"Bake sasoi itxaropentsu bati ireki dizkiogu ateak eta bueltarik gabea izatea nahiko nuke. Osasuna eta lana baditut, ez da gutxi".

**LAGUNA HIL, GAIXORIK**  
"Esklerosi anizkoitzak jota hil zait aurren lagun handi bat. Gaztea eta ekintzailea zen eta gaitzak eramane zuen asko sufritu ondoren".

**VICTORIANO GALLASTEGI**Erretiratu  
Bergara

**ETA-REN ERABAKIA**  
"Historikoa izan da, ez aurrengo berri onena, urteetako baizik. Hortik etorriko da herri honetako bakea eta etorkizuna".

**LANGABEZIA**  
"Hilabetea joan, hilabetea etorri, gero eta langabe gehiago. Ikusi besterik ez dago ze egoeratan dauden hainbat familia!".

**IRAITZ AGIRRE ARANGUREN**Bagarako teknikaria  
Arrasate

**ARO SOZIAL ETA POLITIKOA**  
"Oso baikorrak iruditzen zaizkit Euskal Herrian aro politiko eta sozial berri baterako aurren izan diren baldintzak".

**INDARKERIA SEXISTA**  
"Batetik, indarkeria sexista; eta, bestetik, aurren izan diren mugimendu sozialen aldarrikapenak ezerezean gelditu direla iruditzen zait".

**ANARTZ AGIRRE**Kazetaria  
Bergara

**BAKERAKO LEHEN PAUSOA**  
"ETAk armak uztea erabaki du eta itxaropena sortu du horrek. Lehen pauso bat da herri honen burujabetza eta askatasunerako bidean".

**MURRIZKETAK**  
"Krisi ekonomikoak murrizketak dakartza hainbat arlotan; tartean, euskara, kultura eta euskal hedabideetan. Kezkagarria da".

## 2011 ONENA & TXARRENA

GOIENA.NET

Goiena.net-eko erabiltzaileek ere aukeratu dute urteko onena eta txarrena. Guretik hasita, baita Euskal Herrikoa eta mundu mailakoa ere. Hemen emaitza.

**DEBAGOIENEN ONENA**

%40 **Bilduren arrakasta.**  
%32 **Abertzaleen garaipena.**  
%18 **Goienak Rikardo Arregi saria.**

**EUSKAL HERRIKO ONENA**

%55 **ETAren amaiera.**  
%27 **Amaiurren emaitzak.**  
%11 **'Zazpikoloroa' (Pirritx, Porrotx...).**

**MUNDUKO ONENA**

%42 **Erreboltak diktaduren aurka.**  
%26 **Berlusconiren dimisioa.**  
%12 **Donostia 2016.**

**DEBAGOIENEN PERTSONAIA**

%22 **Oihana Kortazar.**  
%21 **Martin Garitano.**  
%18 **Aitor Mendizabal.**

**EUSKAL HERRIKO PERTSONAIA**

%36 **Joseba Sarrionandia.**  
%28 **Iñigo Martinez.**  
%17 **Robin Food.**

**DEBAGOIENEN TXARRENA**

%67 **Langabezia eta krisia.**  
%21 **Korrika eta presoak epaitegian.**  
%11 **Heriotzak lantegietan.**

**EUSKAL HERRIKO TXARRENA**

%22 **Uholdeak.**  
%19 **Espainiako Vuelta Euskal Herri.**  
%17 **Sorturen lege kanporatzea.**

**MUNDUKO TXARRENA**

%23 **Japoniako tsunamia.**  
%20 **Finantza merkatuak.**  
%14 **Emakumearen aurkako indarkeria.**


**MUNDUKO PERTSONAIA**

%44 **Angela Merkel.**  
%32 **Steve Jobs.**  
%19 **Amy Winehouse.**

Fujifilm FinePix J20  
kamera irabazi du Sebas  
Etxeberria bergararrak  
Zorionak!



*Gabon Zoriontsuak!*



# Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

**BEILATOKIA**

**ETENGABEKO ZERBITZUA**

**LORE KOROAK**

**ESKELAK**


**TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA**



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxe: 943 76 12 99  
e-posta: [euskalduna@harrespil.net](mailto:euskalduna@harrespil.net)



Ezkerretik eskuinera:  
Mikel Lizarralde  
Oihan Vega  
Fermin Etxegoien  
Arkaitz Villar  
Iker Barandiaran



# Konfirmazioen urtea

- ▶ Jupiter Jon talde irundarra da urteko errebelazioa eta Xabier Montoiarena itzulera bikaina
- ▶ Esne Beltza eta Zea Mays, 'Negua joan da-eta' abestiarekin, festa giroaren jabe egin dira
- ▶ Nazioarte mailan, P.J. Harveyren azkenak jaso ditu txalo eta laudorioak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Azken urteetako lan eta ahalgintzen fruitua jasotzeko garaia izan da aurtengoa. Batetik, **Berri Txarrak** dago, aurreikuspen guztiak hausten segituz eta Fermin Etxegoienek "proiektzio handieneko euskal talderik onena" moduan punteria handiz izendatu duena. Diskoa, *Haria* (Gor, 2011), labetik atera berri daukate eta hasi besterik ez da egin, eta ziurrenik 2012a eurena izango da. Arkaitz Villar herrikideak ere ez du zalantzarik hirukotea puntaren puntan jartzeko, eta "talde horren muga non dagoen" ez daki; dio "ikusgarria dela" bizi izaten ari diren momentua". Bestetik, **Xabier Solano** daukagu. Makinatxo bat proiektarekin ezagutu dugu hernaniarra, baina **Esne Beltza**rekin "dianaren erdian" asmatu du; Oihan Vegak azaltzen duenez, gau giroaren erregeak izan dira, zuzeneko zirrargarriak egin dituzte aurten eta "estiloen fusioa beti estimatua izan bada ere, inork baino hobeto egiten jakin dute, plazak beteaz eta diskoak salduta, gai-



Esne Beltza taldea zuzenean Bermeen. | IGOR ZALBIDEA

nera". Solanoren konfirmazio urtea izan da, hortaz, Berri Txarrak taldekoak aspalditik dabil-tza-eta erakusten erakutsi beharrekoa.

## Urteko abestia, "fenomenoa"

Musikaren munduko beste muturrean, baina, dantzarako doinuek duten momentu beroaz ez dauka zalantzarik Oihan Vega kazetariak -disco jartzailea ere bada- eta, horregatik, **LMFAO** urteko onenaren artean kokatzeko dudarik ez dauka, "Rihanna eta Lady Gaga modukoen pop motari aurre egiten jakin dutelako" eta dance musika "desberdinarekin arrakasta lortu dutelako", nahiz eta "Black Eyed Peasen proposamen oso antzerakoarekin etorri". Haien Party Rock Anthem delakoa birritan pentsatu barik jarri du urteko abestien zerrendan. "Aurten ere, azken hoge urteetan bezala, festa giroko abestiek funtzionatu dute ondoen", dio. Txanponaren beste aldean **Mana** mexikarrak kokatzen ditu Vegak, "oso talde ona, berezko argumentu nahikoa badauzkana", **54. orrialdean, jarraipena.**



**Produktua  
berritu dugu**

**Zerbitzu hobea emateko  
ideia berriak ditugu**

**Zu laguntzeko  
pentsatuta**

**BERANGO**  
DEKORAZIOA, SUKALDEAK

BANATZAILE OFIZIALA  
**SANTOS**

tel.: 943 79 01 92  
faxa: 943 79 01 11

Gipuzkoa etorbidea 1  
ARRASATE





Berri Txarrak, Haria.



Super Sweet, The Hereafter.

## 53. orrialdetik dator.

baina "modari men eginda elektronikarekin nahastuta, sekulako kaka egin dute". Formula berak guztientzat ez du balio.

Etxera itzulita, baliteke **Zea Maysek Era** (Bonberenea Ekintzak, 2010) diskoarekin emaitzarik boro-bilena ez kaleratu izana, baina, talde *gaztetxeroa* izateko, balentria egin dute. *Negua joan da-eta* taberna baten ipiniz gero, ozenago entzungo dira inguruko ahotsak abestia bera baino eta baliteke bat edo beste bideoklipiko imintzioak imitatzen hastea ere. "Fenomenoa" izan dela dio Arkaitz Villarrek eta Fermin Etxegoienek ere 2011ko abestia dela dio, duda barik, nahiz eta hark gura go duen **Middle East**-en *Jesus came to my birthday party*.

Gautxoriei, ordea, **Bongo Botrakoren** *Todos los días sale el sol* ('Ey, chipirón' moduan ezagunagoa) ganberroa etorrako zaie gogora, agian, Vegak disko festetan gehien ipinitako abestietako bat. Aurten go gaueko erregeak izan dira **Pitbull** ekoizlea eta, gertuago, Xabier Solano, "ukitzen duen guztia urte bihurtuta", eta, Vegaren hitzak errepikatuta, erdi txantxetan, "euskal Pitbulla" litzatekeena.

**Esperimentazioa, bide bezala**

Disco bolen distiratik urrun, urteko faboritoak gitarra inkorformis-

ta eta ilunagoetan aurkitu ditu Iker Barandiaran kazetariak. Eskarmentu eta esperimentazioaren balioaren jakitun, rock konprometitua eremu berrietara eroanda, beteranotasuna eta lozorroa eskutik ez datozela frogatu duten taldeak. **The Ex** herbehereetarrak dira, haren ustez, urteko taldea. 70eko hamarkadatik hardcore egurra ematen egon den taldea, abeslaria utzi eta gazte bati haren lekua utzita eta jazzerrantzako esperimentazio urratsa egin da, urteko proposamenik interesgarriena da, Barandiaranen ustez, *Catch my shoe* (The Ex Records, 2010) lana. 80ko garage soinuari ukitu berezia eman dioten **Super Sweet** donostiarrak ere nabarmentzen ditu aurten arreta eman beharreko talde moduan. Bere garaian Señor No taldea sortu zuten bik eta teklatu jotzaile batek osatzen dute taldea, berme osoa duten musikariak. The hereafter (autoekoizpena, 2011) da, haren ustez, urteko diskoetako bat, "60-70eko hamarkadetako rock doinuak berreskuratu eta freskotasunez" ekartzeagatik. Aipatutako bi taldeetan aspaldiko soinu berrasmakuntza baten bilaketa baloratzen du Iker Barandiaranek, nabarmentzeko moduan. Proposamen berrietan, bide ez oso eroso eta esperimentaletatik jo duten Jupi-

## ESANAK

**"Zea Mays taldearen abesti hori urteko fenomeno izan da"**

ARKAITZ VILLAR

**"Xabier Solano 'euskal Pitbulla' da, urte bihurtzen du ukitzen duena"**

OIHAN VEGA

**"Xabier Montoiak lan ikaragarria egin du, zirraragarria"**

MIKEL LIZARRALDE

**"Baliteke Anai Arrebak-en lan berriak talde 'trorpeteroak' ordezkatzea"**

IKER BARANDIARAN

**"Proiektziorik handiena duen euskal talde onena da Berri Txarrak"**

FERMIN ETXEGOIEN

ter Jon taldekoak aipatzen dituzte Fermin Etxegoienek eta Mikel Lizarralde kazetariak. Pleistozenoko astelehenak (Bidehuts, 2011) lanarekin egin dute debuta, irudimen handiz marraztutako post-rockaren eta esperimentazioaren ertzean. "Dantzarako ere balio dezakeen musika tribala egiten dute. Hardcoretik eta funketik edaten duena", Mikel Lizarralde deskribatu moduan. Hala ere, urteko euskal diskoa **"Xabier Montoiaren onena"** da, Etxegoienek ustez, haren azkena, Montoiaren mundu miresgarria (Bidehuts, 2011), baita Mikel Lizarralderen ustez ere: "Zortzi urte diskorik kaleratu gabe, eta lan ikaragarria egin du. Klasikoa, pop joerakoa pop izan gabe, eta zirraragarria". Jupiter Jonen debutari Anai Arrebak taldearena gehitzen dio Iker Barandiaranek zerrenda osatzeko, "new wave eta post punkaren artean disko dibernigarria" egin dutenak eta "dantzarako musika bai, baina energia handia daukana". Barandiaranek dio "litekeena" dela gau giroan Anai Arrebak taldearen musikak "talde trorpeteroen" lekua hartzea. 2012an ikusi beharko, hortaz, zenbait girotan festarako musikan aldaketa ba ote datorren.

Bertako uztaren onenen artean **Fiachras** bergararren *Hiltzera goaz* (Bonberenea Ekintzak, 2011) eta

**Klak!son** taldearen "nortasun berezia" nabarmentzen du. Urteko beste errebelazioen artean –"taldeko kideak, inondik inora, gaztetxo hasiberriak ez badira ere"– zerrendari gehitzen dio Mikel Lizarralde **Patta ta Sendaezinak** bandaren diskoa (Gaztelupeko Hotsak, 2011).

**Zuzenean, argiak eta ilunak**

Disko salmentaren zauriak aspalditik dauka zorna eta taldeek, iraun gura izatekotan, zuzenean daukate aterabide ia bakarra profesionalki badihardute. Hori horrela, "entzuleek irabazi" egin dutela" uste du Oihan Vegak eta eskaintza aurten ere "oparoa" izan dela konfirmatzen du Fermin Etxegoienek, baina "jendea askoz selektiboago" bilakatu dela, joera moduan. Iker Barandiaranek, oster, rock-and-roll, hard rock eta psychobilly estiloetako emaldi gutxiago egon dela dio. "Hell Doradon eta Plateruenan, estilo horietan erreferente izan diren aretoak biak, mota horretako kontzertu gutxiago antolatututuzte", eta, gurera etorrita, "Arrasaten 3.60 aretoa itxi izana asko igarri da" eta "Eskoriatzako Inker nu tabernan kontzertu gutxiago antolatzen" dituzte. Egoera ez du, halere, batere ilun ikusten Barandiaranek eta nabarmentzen du



Montoiaren mundu miresgarria.



Jupiter Jon taldearen debuta.



1942a ezkerro

Aro berriko  
sukalderako tresneria

San Juan auzoa

BERGARA

Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39

Webgunea: [www.ibili.net](http://www.ibili.net)**Zorionak eta Urte berri on!**

PANADERIA Y PASTELERIA ARTESANA

**KONDE**

PANADEROKUA



**Zorionak  
eta urte berri on!**

Burdiñate 11 Tel.: 943 76 02 57

Tokieder plaza 3 Tel.: 943 76 14 87

BERGARA





Negua joan da-eta abestiaren bideoklipeko une bat. | GOIENA



Florence + the Machineren diskoa.

Bon Iverren *Bon Iver*.

LMFAO taldearen diskoa.



P.J. Harvey zuzenean Londresen. | ARTXIBOA

Koaltur Ostegunak ekimenak ekarri duen bizitza eta Bergarako gaztetxean programazio txukunari eusten diotela urte osoan, gaztetxeetako eskaintzak eta Bilboko Kafe Antzokiak bezala. Aret hartan ikusi zuen Iker Barandiaranek **Drive-By Truckers** country-rock taldea, harentzat urteko sorpresa gozo horietako bat. Kafe Antzokian ere bai, baina zapore mingotsagoarekin ateratzen zen Fermin Etxegoien **Bonnie Prince Billy** ezaguna ikusi eta gero, "gehiago espero zuelako". Horretaz gain, nazioarteko indie-rock musikarien makinatxo bat bisita izan dugu aurten eta Mikel Lizarraldekin Damien Juradok Donostiara egin zuena nabarmentzen du.

#### Polly Jeanentzat, hitz politak

Urteko nazioarte mailako diskoa **P.J. Harvey**ren *Let England Shake* (Island Records, 2011) kritikak laudatua izan da, "20 urteko PJ Harveytik urruti, baina, hala ere, hunkitzeko gaitasuna galdu gabe" segitzen duena, Lizarralderen ustez, eta Villarren ustez ere Harveyren lanik politikoena da urteko onena nazioarte mailan, konposaketa "dinamiko, ausart eta bizia" narbarmenduta. Bartzelonako Primavera Sound jaialdian zuzenean ikusteko aukera izan du, gainera, Villarrek eta "urteko

oroitzapen onenetakoa" da. Fermin Etxegoien ustez, diskoetxe bereko beste emakume ingeles baten bigarren diskoa da urteko onenetarikoa, **Florence + The Machin**eren *Ceremonials* (Island Records, 2011), pop barroko eta ameslaria, oso proposamen pertsonala izanik ere arrakasta komertziala lortu duena. Urteko diskoa **Bon Iver** gaitzizenarekin ezagun egin denaren disko homonimoa da; bakar-ka ateratzen duen bigarrena eta folk intimoa eta bereziarekin kritikaren onspena jaso duena, P.J. Harveyk bezala. Oso bestelako proposamen batekin, Oihan Vega zur eta lur utzi zuen Shakira pop izarra izan zen: "Gogo barik joan nintzen ia eta emakume hori oholztan zer egiteko gai den ikusi eta gero, pena iruditzen zait hartaz daukagun irudi komertzial hutsarekin geratzea", aipatzen du Gaztea irratiko esatariak. Gerri-kolpe beharrik gabe, gitarran maisutza erakutsiz, Azkena Rock jaialdian **Brian Setzer** artistak utzi zuen txundituta Barandiaran. Urtero joaten den festibala da Gasteizko Azkena Rock eta aurten pozik dago **Kyussen** itzulera indartsuarekin eta **Primus** taldearen zuzeneko harrigarriarekin. Urteko zuzeneko onena Arkaitz Villarrek Donostiako Jazzaldian ikusi du **Aloe Blacc** soulman-ari esker,

"zuzeneko indartsu eta bikaina". Gainera, Villarrek azpimarratzen du aurten "zuzenekoek hartu duten indarra" eta "zirkuitua indartuta" dagoela: "Jende ugari joaten da kontzertuetara". "Egia da emandaldi batzuek ikusle gutxi dituztela, baina jendeak zuzenekoetan interes handia" daukala ikusten du. Haren pena herri txikietako disko-dendak ixteko joera da eta "hirietako salmenta gunean geroago eta inpertsonalagoak" direla.

Horrekin guztiarekin lotuta, *Musikazuzenean.com* webgunea ere ez du ahaztu gura Iker Barandiaranek: "Urtea bete berri du webguneak eta asko erraztu dizkigu gauzak musikazaleei". Kontzertuen agenda osoa eta kronikak dakartza webguneak, eta, daudenen artean, osatu eta zainduenetakoa da.

## Spotify-n entzuteko

QR kodean daukazue erreportajerako iritzia eman duten adituek aipatutako abesti eta artistekin egindako zerrenda. Spotify aplikazioa beharko duzu horretarako.





Gabon zoriontsuak opa dizkiegu gure bezero eta lagun guztiei.



Uarkape kalea 2, behe. Arrasate. Tel.: 943 77 20 87  
www.irudisport.com






**Murillo Garajea**  
Auto konponketak orokorrean

**Gabon zoriontsuak  
bergarar guztioi!**

Leizeaga, 4 - BERGARA  
Tel.: 943 76 13 84





# IMB ESTUDIOA

BARNE DEKORAZIOA  
PROIEKTUAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA  
ALTZARIAK

zorionak eta  
urte berri on!

ibargarai 4. 2050 bergara - Tel./Faxe: 943 763737 - [imb\\_estudioa@hotmail.com](mailto:imb_estudioa@hotmail.com)